




Arartekoak uribekostarren 50 kexa baino gehiago aztertu zituen iaz; txostenean jaso ditu. ▶22-23

Zarata-kutsadura kaltegarria da osasunarentzat. Leire Atxa Zaitegi getxoztarrak horri aurre egiteko gailua aurkeztu du: Noisense. ▶16-17



hiruka

Uribe Kostako astekaria



98. zenbakia

2017ko
ekainaren 8tik
ekainaren 14ra arte



Besarkada federazioa osatzen duten bost konpainiak batu dira *Siempre Gila* antzezlan egiteko; Areetako musika-eskolan antzeztuko dute, domeka honetan, ekainaren 11n. ▶12

Gila umorista, akorduan

© BESARKADA FEDERAZIOA

HERRIZ HERRI ERANDIO

Trabudu, dantzan!

Ekainaren 12tik 18ra Euskal Astea antolatuko du Trabudu dantzari-taldeak. Gainera, ikasturteko izen-ematea zabaldu du, Euskal Astea amaitu arte. ▶5



HERRIZ HERRI SOPELA

Bidegorria, ikastolara

Sopelako Udalak 400.000 euro inbertituko ditu, Ander Deuna ikastolaraino helduko den bidegorria egiteko. Hala ere, oraindino ez du obrak has-teko data zehatzik: «asteotan, lizitazioa martxan ipiniko da, eta lanak uda ostean hastea aurreikusten dugu», zehaztu du Udalak. Obrak beste hobe-kuntza batzuk egiteko aprobetxatuko dituzte: saneamendu-sarea hobetze-ko, besteak beste. ▶7

KIROLAK LEIOA

Askartza, nagusia ▶18



Egunero, 24 orduz, Uribe Kostako albiste gehiago atari digitalean: www.hiruka.eus



Zabalera

JOSEBA
SANTXO URIARTE
Filologoa, idazlea, ikertzailea

Haritz zaharraren sokorru etsia

Ez nabil botanikaz. Ezta heraldikaz ere. Hizkuntzaz egingo dut gaurko artikulua. Bestela esanda, artikulua artikulua bihurtuko dut. Izan ere, euskararen genero ezaz harro gaudenok badugu zertaz kezkatu. Eta bestela, bilatu Euskaltzaindiaren webgunean (Hizkuntza baliabideak > Onomastika > Pertsona-izenak) *Haritz* izena. Eta ostean *Haritza*. Zer desberdintasun ote dago artikulua mugatu singular berez generobako horren atzean? *Haritz* gizonezkoa omen da, eta *Haritza* andrezkoa. Flipatu duzu, ezta? Orduan prest zaude hurrengo urratsa emateko. Orain bilatu *Hodei* pertsona-izena, eta ostean *Hodeia*. Diferentzia? *Hodei* gizonezkoa da eta *Hodeia* andrezkoa. Horra hor goi-mailako meteorologia linguistikoa! Eta jarraitu ere egin daiteke, aspertu arte ere: *Eguzki* gizonezkoa, *Eguzkia* andrezkoa, *Zuhaitz* gizonezkoa, *Zuhaitza* andrezkoa...

Inon entzun dut horren arrazoa gizonezkoen eta emakumezkoen izenak bereizi beharrean datzala. Espainiako Erregistro Zibilak agindu bide zuen, ziurtasun kontuen aitzakian.

Irudimena erabil dezagun, otoi. Kasurako, Lur, Hodei, Ibai, Zuhaitz, Haize eta horrelako euskal izen natural zoragarrien kasuan, utz diezaiozun jendea libreki aukeratzen batzuk zein bestetzek, generoa kontuan hartu gabe, eta ondoren eskatu bigarren izen bat eransteko, genero markatuko. Adibidez: Lur Eneko gizonezkoa litzateke, eta Lur Aitziber emakumezkoa. Jakina da bigarren izen hori erraz ezkuta daitekeela gero eguneroko bizimoduan.

Proposamen inprobisatua da, eta hoberik otuko zaigu; baina ez dezagun onartu gure euskarren muinaren kontra zuzen-zuzenean doan erabaki hori. Ez dezagun euskal haritza ihartu! ◀

Getxo

Inbertsioak egiteko akordioa lortu dute

Gobernu-taldearen eta PPren arteko hitzarmenari esker lortu dute kreditu gehigarria onartzea.

Udalbatzak inbertsio osagarriak finantzatzeko hainbat proposamen onetsi zituen azkenengo osoko bilkuran, 8,7 milioi euroko zenbatekoan. Horrez gainera, 2017ko parte-hartze izaerako aurrekontuen prozesuan herritarrek lehenetsitako proiektuen finantzaketa onetsi zuen, milioi bat eurokoa. Kreditu gehigarri bakoitza banan-banan bozkatu zuten, botoa proposamenaren arabera izan baitzen.

GUK taldeak EAJ kritikatu zuen, «2017ko aurrekontuen orde, osoko bilkuran ziurtasunez onetsiko dena soilik aurkezteagatik. EAJk haize-orratz baten antzera egiten du bira, eta edozeineguz egiten du ituna bere proiektuak aurrera ateratzeko». EH Bilduk ere kritikatu zuen Gobernu-taldea, «ez baita inolako alderdigaz aurrekontuak negoziatzeko gai izan. Osoko bilkuran aurkeztutakoa iruzurra da, eta akordioetara heltzeko duten ezintasuna agerian utzi du. 8,7 milioi euroko inbertsioetatik, 4 inguru PPgaz adostuta zeuden, eta beste diru-laguntza batzuk, gugaz». Gobernu-taldeak, aldiz, argi utzi gura izan zuen udalbatza hori ez zela aurrekontuei buruzko debatea.

Horrez gainera, EH Bilduk behin eta berriro galdetu zion Gobernu-taldeari ea egia den aurrekontu euskal presoan senideei diru-laguntzarik emango ez zaiela, PPK egindako esku-hartzean ziurtatu zuen bezala. Horren harira, popularrek



Inbertsio osagarriagaz Manuel Gainza parkeko lurpeko aparkalekua egingo dute, besteak beste.

adierazi zuten laguntza horien «oztopoa» gainditu ostean eman zela batesa inbertsio horiei, «onak direlako udalerrirako». EH Bilduri erantzunez, Ignacio Uriarte Ogasuneko zinegotziak gogorarazi zuen euskal presoentzako laguntzak aurrera ateratzeko akordioa lortu zela iaz, baina, aurren, ez.

Askotariko mozioak, onartuta

Osoko bilkurak zazpi mozio onartu zituen. Lehenengoa, PPrena izan zen, Areetako Xake plazan altzariak ipinita plazaren itxura eta erabilera sustatzeko. Udal-taldeek (HAPOan jasotakoa betez) plazaren erabilerak erabakiko dituzte eta, horren ostean, ideien lehiketara bat egingo dute. Onetsitako PPren beste mozio baten bidez, Getxo Irratian alderdi politikoentzako tarte bat edukitzea eskatu zen. GUK taldeak ere bere proposamen bik aurrera egitea lortu

zuen: Espainiako Gobernuari eta Diputatuen Kongresuan dauden taldeei Estatuko 2017rako Aurrekontu Orokorren Lege Proiektuko 27. xedapen gehigarria ken dezatela eskatzearena; eta animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal-ordenantza aldatzeko helburuagaz eraturako ordezkari politikoaren taldea osatzearena. Bestalde, EH Bilduren mozio bat onetsi zen, ekainaren 12a Medeapen Eguna izendatzeko eta 1937ko ekainaren 12an tropa frankistak Getxora sartu zirela gogoratzeko ekitaldi publiko bat antolatzeak. Azkenik, Ciudadanosen beste mozio bi onartu ziren: GetxoBizi zerbitzuaren aplikazioa sistema eragile denetan ezartzeko aukera aztertzea; eta udal-gobernuak hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatzeko prozesuaren inguruko informazio eguneratua batzeko konpromisoa hartzea. ◀

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

TAPU TABERNA

Santa Eugenia Kalea 13
ERROMA

ez duzu ahaztuko
no lo olvidarás

UDAKO
ESKAINITZA
2017 CURSOS
DE VERANO

aek
euskara praktikoa

URIBE KOSTAKO AEK

UDAKO IKASTARO TRINKOAK
ETA BARNETEGIAK

Leioa 944 64 60 63 · lania@aek.eus
Getxo 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/uribekosta/
www.aek.eus

Getxo

«Getxoko hiztegi anitza» sortu gura du Bilgune Feministak

Martxa baten bigarren notak goiburuagaz, herri-ekimen feminista abiatu dute; maiatzaren 31n aurkeztu zuten, eta topaketa gehiago egiteko asmoa daukate.

Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emaginek plazaratutako *Izena eta izana ezbaian* gida praktikoaren esaldietako bat akordura ekarri dute Algortan, martxan ipini duten herri-ekimen berria definitzeko: «Hizkuntzak errealitatea sortzen duela esaten badugu, errealitatea alda dezakegu hizkuntza aldatuz gero». Maiatzaren 31n egindako aurkezpenean azaldu legez, ideia horrek laburtzen du egitasmoaren funtsa: «egun existitzen diren zapalkuntza anitzak gainditzeko bidean, hizkuntzak ardatz izango dituen ekimena da», Algortako Bilgune Feministako kideek azaldu dutenez.

Gainera, euskara «ardatza» izango da, «pertsonek arteko harreman bidezkoetan oinarritutako gizarterako aurrepausoak ematen jarraitzeko».

«Getxoko hiztegi anitza» sortu gura dute, *Martxa baten bigarren notak* ekimenaren bitartez: «feminismoan oinarrituta eta feminismoetik begiratuta; hizkuntza, ele eta adierazpide askotarikoa (irudiak, kantuak, esaterak...), sormenaren bidez, nondik hasi adostu, baina nondik edo noraino helduko garen aldeztu aurretik mugatu gura barik», zehaztu dutenez. Hala, feminismoaren eta hizkuntzen bidez, Getxoko biztanleen askotarikotasun oparoa parteka-

tu, eta izate, kultura nahiz hizkuntza ezberdinetako berbak, mezuak, esaterak, kantuak eta abarrak baliatu gura dituzte sustatzaileek. Baina, esan bezala, ez dute ahozko hizkuntzetara mugatu gura: «Gure inguruan lehen hizkuntza gaztelania ez dugunon hizkuntza aniztasunari komunikatzeko bestelako kodeak (braillea, keinuak...), dialektoak eta tokiko esaterak gehituz gero, ikaragarria da aniztasuna», nabarmendu dutenez.

Hurrengo ekimenen datarik ez dute zehaztu; baina, besteak beste, komunikaziora bideratutako tailerrak egin gura dituzte. Horrez gainera, Algortako Portu Zaharreko jaietan ipini ohi duten txosna iritziak elkartrukatzeko leku aproposa izan daitekeela uste dute Bilgune Feministakoek. ◀

info +: bfgalgora@gmail.com

Kuadrilla Eguna antolatuko dute zapatu honetan, Itzubaltzetan

Azken urteotan legez, Itzubaltzeta/Romoko kuadrillak Santa Eugenia plazan batuko dira, festa-giroan, zapatu honetan, ekainaren 10ean. Aurtengoa hamabigarren ekitaldia izango da eta, ohi den legez, auzoko laguntaldeen egun osoko egitaraua prestatu dute. Eguerdiko 12:00etan hasiko dute eguna, txupinaren jaurtiketaz batera. Horren ostean, poteoa egingo dute ezterriak freskatzeko eta herria girotzeko. 15:00ak jotzean, kuadrilla guztiak Santa Eugenia plazara hurre-ratuko dira, eta tripa aseko dituzte bazkariagaz; ondoren, kantatzeko tar-tea ere izango dute, karaokea egongo da eta. Bazkariko txartela erosi beharra dago: hilaren 8a baino lehenago, 8 euroan, La Mona tabernan; bestela, egunean bertan erosiz gero, 12 euroan egongo da txartel bakoitza. ◀

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

CURSOS INTENSIVOS DE VERANO 2017

LOPE DE VEGA, 12 - 48930 (ROMO) GETXO
94 464 62 99 • euskaltegi@getxo.eus • www.getxo.eus/eu/euskaltegi

UZTAILAREN 3tik 24ra arte
MAILA GUZTIAK
8:00etatik 13:30era (80 eskola-ordu)
Aurre-matrikula: ekainaren 26ra arte

del 3 al 24 de JULIO
TODOS LOS NIVELES
de 8:00 a 13:30 (80 horas lectivas)
Pre-matricula: hasta el 26 de junio

88,00 €

IRAILAREN 4tik 26ra arte
AZTERKETAK PRESTATZEKO B1-B2-C1
8:00etatik 13:30era (85 eskola-ordu)
Aurre-matrikula: uztailaren 21era arte

del 4 al 26 de SEPTIEMBRE
PREPARACIÓN DE EXÁMENES B1-B2-C1
de 8:00 a 13:30 (85 horas lectivas)
Pre-matricula: hasta el 21 de julio

93,50 €

Getxo

Askotariko zaporeak batzea da helburua

Kulturen arteko gastronomia-tailerra eta afaria egingo dute ekainaren 16an, Azebarrin.

Getxoko Bizilagunak ekimenak Mila Zapore tailerra antolatuko du ekainaren 16an, barikuan. Saio hori kulturen arteko gastronomia-tailerra izango da. Askotariko jatorria duten irakasleek gidatuko dute saioa eta, talde txikitan banatuta, «oso plater ezberdinak» prestatuko dituzte.

Tailerra Algortako Euskal Herria katean dagoen Azebarri kultur elkartearen izango da, 19:00etatik 23:00etara. Bertan parte hartu gura duten denek aldez aurretik izena eman beharko dute, telefonoz deituz edo e-mail bat bidaliz. Izen-ematea doakoa da.

Bizilagunak ekimenagaz elkartzeko eta ospatzeko guneak sortu gura dituzte getxoztarren artean, udalerrian kultura-artekotasuna, aniztasuna eta interakziorako eremuak bilatzeko. ◀

644 277 155 (Rozio) / 644 595 191 (Cony)
getxobizilagunak@gmail.com



Mila Zapore egitasmoa antolatu du Bizilagunak ekimenak. EGIZU

Edukiontzien kopurua handitu gura du Getxoko Udalak

Orain dela hilabete bi inguru ipini zituzten hondakin organikoak batzeko edukiontziak eta, gaur egunera arte, 1.761 eskaera jaso dira birziklatzeko beharrezkoa den kita eskuratzeko: edukiontzia zabaltzeko txartel elektronikoa; ontzi aireztatu bat, edo aldeetan zuloak dituen bat, gai organikoak etxean batzeko; 50 poltsa biodegradagarri; eta zer hondakin birzikla daitezkeen adierazten duen imana. 98 edukiontzi jarri dituzte udalerrira osoan; laster, beste 140 ipiniko dituzte; guztira, 422 ezartzea aurreikusita dago.

Daborduko, 59 edukiontzi-multzo edo bilketagune doitu dituzte, kontuan hartuta auzotarren ekarpenak, irizpide teknikoak eta irisgarritasun-irizpideak. Modu berean, beste 55 gune doitu dituzte berehala. Lurpeko edukiontziei dagokienez, Itzubaltzeta/Romoko Ibaiondo kalekoak hilabete honetan bertan erabili ahal izatea espero dute arduradunek. Algortako



Edukiontzien irisgarritasuna hobetu gura dute.

Etorbiderako aurreikusitakoak, ostera, Algortako erdigunea hobetzeko proiektuan jasota dauden bide-berrantolaketakarako lanakaz koordinatuta ipiniko dira. Edukiontzi berriak ipini zirenean, 160 kexa edo iradokizun jaso zituzten hilabetearen. Apirilean, beste 86 igorri ziren. Lehenengoak kopapenagaz, pedalagaz eta gainezka egiteagaz lotuta zeuden. Bigarrenak, zerbitzuagaz: irekiera akastunak edukiontzi marroien estalkietan eta garbiketa arazoak, besteak beste. ◀

Portu Zaharreko jaien kartel-lehiaketa, martxan

Abuztuaren 11tik 14ra bitartean izango dira Algortako Portu Zaharreko jaiak; urtero legez, jaien berri emango duen kartela aukeratzeko kartel-lehiaketa martxan ipini dute. Lanak ekainaren 27ra arte aurkeztu ahal izango dira, Algortako Villamonte kultur etxean. Egun bi beranduago, ekainaren 29an, herri-bozketaz aukeratzeko dute kartel irabazlea, Portu

Zaharreko Etxetxu plazan, 12:00etatik 18:00etara. Lehenengo eta bigarren sariak 350 euro eta 150 eurokoak izango dira, hurrenez hurren. Kartelek 50x70 zentimetroko neurria izan beharko dute, ala alderantziz; eta honako testu hau izan beharko dute, derrigorrez: «Portu Zaharreko jaiak 2017, abuztuak 11-14». ◀

info+: portuzaharra.kartelak@gmail.com

Energia berriztagarriaren erabilera bultzatu gura dute

Getxoko enpresek eta dendek energia berriztagarria erabil dezaten, erronka berri bat martxan ipini du Enara enpresak. «Urtebetean 600 tona CO2 murrizteko erronka hartu dugu. Badira jada erronkarekin bat egin duten enpresa asko», azaldu dute arduradunek. Enara Gnera taldearen enpresa merkaturatzailea da, eta % 100 berriztaga-

rriak diren iturrietatik ateratako horniketa elektrikoa eskaintzen du, baita tarifa ezberdinak ere, bezeroaren beharren arabera. Hilabete honetan, gainera, kontzientziazio-kanpaina bat egingo dute; horretarako, hainbat ekintza abiaraziko dituzte, udalerriko enpresei eta herritarrei bideratutakoak. ◀

info+: elretosostenible.es

portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48901 Algorta-Getxo
T. 94 484 29 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

prentsa · aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

BORDATUAK EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45
Algorta

Telletxe 1
94 460 27 41

saiazgetaria

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com

saiazgetaria

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com

Erendio

Faoetako jaiak

Ekainak 9, barikua

18:00 Txupina eta tiragoma-txapelketa.

21:00 Pintxo-potea eta afari suediarra.

22:00 Dantzaldia.

Ekainak 10, zapatua

12:00 Puzgarriak eta ume-jolasak.

14:00 Trikiti-erromeria.

15:00 Paella-jana denentzat.

18:30 Olgetan Solas sendientzako jolasak.

20:30 Txixi-burruntzia eta dantza-festa.

Ekainak 11, domeka

11:30 Kalejira eta dantza-erakustaldia.

13:00 Meza.

15:00 Herri-bazkaria: indaba-jana.

16:00 Herri-kantak, trikitilariakaz.

17:30 Briska-txapelketaren 36. edizioa.

20:30 Azken ekinaldia.

Goierriko jaiak

Ekainak 10, zapatua

09:00 Sukalki-txapelketa.

17:30 Lur Gaikeko Euskadiko Sokatira Txapelketa, 640 kilokoa.

17:30 Umeentzako tailerrak.

21:00 Saiheski-jana.

24:00 Gaupasa, Garilak 26 taldeagaz.

02:00 Bingo-lehiaketa.

Ekainak 11, domeka

12:30 Meza.

17:30 Idi-probak.

Ekainak 13, martitzena

12:30 Meza eta hamaiketako nagusientzat.



Zapatuan, erromeria-doinuak izango dira Goierriin. © GARILAK 26

Goierriko eta Faoetako jaiak, aste-akabuan

Barikutik martitzenera, festak izango dira Erandioko auzo bitan: Faoetan, San Bernabe jaiak ospatuko dituzte; Goierriin, osterara, San Antonio jaiak, Martiartun.

Ohi den legez, batera datoz San Bernabe eta San Antonio omentzen dituzten Faoetako eta Goierriko jaiak. Bietan egongo da familia-giroan gozatzeko aukera. Berbarako, Faoetan, Olgeta Solas sendientzako jolasak izango dira zapatuan, eta herri-bazkaria, domekan. Goierriin, be-

rriz, lehenengo mailako kirol-probak izango dira, Martiartu dorretxearen azpian. Bertan jokatu dute Euskadiko lur gaineko sokatira-txapelketa, zapatuan; domekan, idi-probak egingo dituzte. Berangoko Ekaitz Elorduiaren idiek Laukizkoen eta Zallakoen aurka jardun beharko dute lehian. ◀

Ulertuz Eguna egingo dute Astrabuduan datorren zapatuan

Ekinaren 10ean, zapatuan, Takolos Eirradi-klubak Ulertuz Eguna antolatuko du, Ulertuz elkarteari laguntza emateko. Astrabuduko Josu Murueta plazan batuko dira, 11:00etatik aurrera. Elkartasun-paella prestatuko dute, ondoren errazioak bost euroan salduko dituzte, irabaziak Ulertuzi emateko. Gainera, azkenburuko txapelketa, herri-ginkana eta beste ezustekoren bat izango dira. Entzumen-dibertsitate funtzionala duten zenbait ume bizkaitarren senideek eta lagunek osatzen dute Ulertuz; zerbitzu asko eskaintzen dizkie neska-mutil horiei. ◀

Enplegua sortzeko programaren eskaera-epea amaitzear dago

Datorren egunean, hilaren 15ean, amaituko da Indartu programako laguntzak eskatzeko epea. Egitasmo horren helburua enplegua sortzea da, Erandion, Ezkerraldean eta Oizartaldean. Horretarako, «inbertsio produktiboa» egiten duten enpresen artean sei milioi euro banatuko ditu Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak. Iaz, Erandioko enpresek ez zuten proiekturik aurkeztu. ◀

Trabudu dantzari-taldeak Euskal Astea antolatuko du egunotan

Ekainaren 12tik 18ra

Euskal Astea egingo du Trabuduk, eta ikasturteko izen-ematea zabaldu du.

Astelehenetik domekara, hilaren 12tik 18ra, euskal dantzez beteko da Astrabudua. Trabudu dantzari-taldeak antolatuta, eskola magistrala izango da Ignacio Aldekoa ikastetxean, astelehenetik eguaztenera, 19:00etatik 21:00etara. Bertan, Arratiako jotak, panderoa eta kutxarak praktikatu dituzte. Zapatuan,

ekainaren 17an, dantza-erakustaldia egingo dute Cortesko Makil dantzataldeak eta Trabuduk, Josu Murueta plazan, 19:00etan. Domekan amaiera emango diote Euskal Asteari, hilaren 18an. Goizeko 11:30ean, kalejira egingo dute Jose Andres Mendiguren plazaraino. Bertan egingo dituzte dantza-erakustaldia eta herri-bazkaria. Ostean, 18:00ak aldera, erromeria eta dantza-plaza egongo dira.

Bestalde, Trabuduk 2017/18 ikasturteko aurretiko matrikula-epea zabaldu du, hilaren 18ra arte. Euskal dantzak edo alboka, trikitia, panderoa eta txa-



© TRABUDU DANTZARI-TALDEA

laparta musika-tresnak jotzen ikasteko eskaintza egin du. Aurrez aurre edo Internetez izena eman daiteke. ◀

info+: trabududantzariataldea@gmail.com

Gizarte Unamaz Alkartuak elkartearen 30. urteurrena

Gizarte Unamaz Alkartuak (GUA) Astrabuduko elkarteak elkartasunez ospatuko du bere 30. urteurrena. Hala, domeka honetan, hilaren 11n, zenbait jardura egingo dituzte Mendiguren plazan, neska-mutilek gozatzeko, auzoa girotzeko eta Sortarazi GKEri laguntzeko. Goizeko 11:00etatik aurrera, puzgarriak, umeentzako jolasak, animazio-ikuskizuna eta elkartasun-txosna egongo dira. Bestalde, GUAk ikasturte-amaierako txangoa prestatu du, gura duten sendientzat. Datorren ekainaren 18an, domekan, Zumaia-ra joango dira eguna pasatzera. Izena posta elektronikoz eman daiteke. ◀

izen-ematea: gizarte.unamaz.alkartuak@gmail.com



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura izanex gero, etxera erango dizugu egunkaria!

txakoli
mota
gane
txakolina

Leloa-Unbe erreplidea 34
(Akarlanda parkea) Goierri-Erandio
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Leioa



Besteak beste, Avanzada lurperatzen has litezke, PPren ustez.

Udalaren soberakina 23 milioi eurokoa da

Diruaren zati bat hainbat beharrez aurre egiteko erabili beharko lukete, oposizio alderdien ustez.

Leioako Udalaren diruzaintza-soberakina 23 milioi eurokoa da, bertoko agintariek jakinarazi dutenez; diru horren zatirik handiena Pinosoloko kiroldegia eraikitzeke erabili gura dute. Azken urteotan horrenbeste etxebizitza eraiki izanak suspertu egin ei du Leioako ekonomia. Mari Carmen Urbietak alkateak adierazi duenez, kuxan dagoen diru hori gastatzen joan daitezke, baldin eta premiazko beharrezan bat baldin badago; berbarako «zulo handi bat errepidean».

Oposizio alderdiek, oster, soberakin hori beste inbertsio batzuk egiteko erabili beharko luketela uste dute. Jose Ignacio Vicente Esnatu Leioa alderdiko zinegotziaren arabera, milioi bat euro inguru erabili beharko luke-

te enplegua sortzeko, «mantentze-lanetarako, bankuak margotzeko...», zehaztu duenez. Ildo horretan, «langile berriak hartzeko, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen zain egotea» egotzi die Vicentek agintari leioaztarrei. Bestelako beharrak ere antzeman ditu Esnatu Leioako ordezkariak: «Bulevardeko pergola erortzeaz dago, eta faroletako kristalak apurtuta daude», esan duenez.

EH Bilduren bozeramailea den Aritz Tellitoren arabera, «ulergarria» da kiroldegi berria eraikitzeke dirua aurrezte. «Hala ere, ez dut nabaritzen ezelako aurrerapenik proiektuaren diseinuan; herriarrakaz eta kirol-taladak batera diseinatu beharko litza-teke», zinegotzi abertzaleak dioenez. Bestalde, faltan sumatzen ditu Sako-neta kiroldegia konpontzeko inbertsioak. Azkenik, PPko zinegotzia den Xabier Olabarrietaren ustez, «kudea-keta kaskarraren adibide garbia» da soberakina horrenbestekoa izatea. ◀

Elkartasunaren hamabostaldia egiten dabilta GKEak

Hamabost Egun Solidario ekimenaren bitartez, leioaztarrek «hur-bilagotik ezagutaraziko dute nora bideratzen diren garapenerako lan-kidetza-proiektuetarako udal-funt-sak», bertoko agintariek adierazi dutenez. Halaber, «aukera ona» izango da GKEk herrialde pobretuetan egiten duten lana jai-giroan ezagutzeko; izan ere, hainbat jarduera egiten dabilta, Kultur Leioan: besteak beste, erakusketak, zinema, tailerrak eta berbal-diak. Jardunaldi horien barruan, hainbat ekintza egongo dira gaur, eguena, ekainaren 8an. Ipuin-kontalaria eta Afrikako dantzak (Manos Unidas), bidezko merkataritzari (Proclade Yanapay fundazioa) eta Palestinako emakumeei (UNRWA) buruzko berbaldiak eta film laburrak, eta tearen zeremonia (Leioa Pro-Sahara Fath) egongo dira, 18:30etik 21:00etara. ◀

Udatxikiko eskaera guztiak onartu ditu Leioako Udalak

Udatxikin izena eman duten ume guztiak ekimenaren parte hartze-ko aukera izango dutela jakinarazi du Udalak; hortaz, ez dute zozketarik egingo zein onartzen duten eta zein ez erabakitzeke. Programa arrakastatsu hau 2011tik 2014ra bitartean jaiotako haur leioaztarrei zuzenduta egongo da; uda aldean, hainbat ekintza egiteko aukera ematen die txikiei. Jarduera guztiak Altzaga ikastolan zein Mendibile eta Artatza-Pinueta ikastetxeetan izaten dira. Udal-agintariek zehaztu dutenez, «lanean dabilta gurasoei lagundu gura dien egitasmoa da, lana eta familia batera erosten laguntzeko». Aldi berean, «ikasturteko heziketaren osagarri moduan aurkeztu da programa hau, kalean eta komunitatean murgilduago». Batzar informatiboak ekainaren 27an eta 28an egingo dituzte, ikastetxeetan. ◀



Betiko ikastolak irabazi du jaietan sexu-erasoen kontra-ko ikurra izango den kartela aukeratzeko lehiaketa; Aitor Marcos eta Josu Landaluze ikasleak dira lanaren egileak. Ikastolak 600 euroko material-sorta jaso du, eta tapoi-batzeagaz lortutako 86,40 euroak. © BETIKO IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko Ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

ARTOLOZAGA ANAIK
Tailerrak

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.taileresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

Car Service

Bertoko historia eta istorioak ezagutzeko aukera, Boulevarden

Leioako historia eta istorioak ezagutzeko aukera egongo da, domeka honetan, ekainaren 11n, Boulevarden; izan ere, Herrigunek Ezagutzen Azoka egingo du bertan, 11:30etik 13:30era arte. Hala, antzinako argazkiak erabiliz, Leioan egon diren aldetak ezagutzeko, aztertzeke eta ulertzeke aukera izango dute parte-hartzaileek; Jabi Arenazak azalduko ditu. ◀

Sopela

Ikastolara bizikletaz joateko

Ander Deuna ikastolara iritsiko den bidegorria egiteko, 400.000 euro erabiliko ditu Udalak.

Sopelako Udalak 400.000 euro inbertituko ditu, Ander Deuna ikastolaraino helduko den bidegorria egiteko, bertoko agintariek ekaineko *Sopela Gurea* aldizkarian iragarri dutenez. Hala ere, oraindino ez dute obrak hasteko data zehatzik: «asteotan, lizitazioa martxan ipiniko da eta lanak uda ostean has-tea aurreikusten dugu», zehaztu dute. Bidegorri berriak 600 metroko luzera izango du, eta Enrique Urrutikoetxea eta Gatzarriñe kaleen arteko bidegurutzean hasiko da; hala, Olabideko bidegorriari jarraipena emango dio. Horrez gainera, udal-ordezkarri sope-

loztarrek obra horiek aprobetxatuko dituzte beste hobeakuntza batzuk egiteko: saneamendu-sarea konpontzeko eta zuntz optikoa herriaren erdigunera eroateko, besteak beste.

Bitartean, Ander Deuna ikastolaraino helduko den bidegorria EAJk eta PSE-EEK osatutako Gobernu-taldeak eta EH Bilduk adostutako udal-aurrekontuen ondorioa dela adierazi dute udal-agintariek. Bestalde, Gontzal Hermosilla Sopelako alkatearen berbetan, «neurri honekin, herritarren eskaerari erantzuna ematen zaio; ikastolara joaten diren ikasleen eta langileen segurtasuna bermatuko dugu». Hermosillak uste du bidegorri berriagaz ikastolarainoko bidea egiten duten ibilgailuen kopurua «nabarmen» murriztuko dela. «Neurri onuragarria da; albiste bikaina da, denontzat», adierazi du udal-arduradunak. ◀



Enrique Urrutikoetxea eta Gatzarriñe kaleen arteko bidegurutzean hasiko da bidegorria.

Urpeko zuntz optikoko kablea martitzenean helduko da

Sopela eta Virginia Beach (AEB) lotuko dituen *Marea* izeneko urpeko zuntz optikoko kablea ekainaren 13ko goizaldean helduko da Bizkaiko udalerrira. Lanak hemen hasi behar zituzten; hala ere, plangintza-aldaketa egin da; maiatzaren 24an hasi ziren kablea Atlantiko ozeanoan barrena zabaltzen, AEBetako ekialdeko kostaldetik hasita. Bitartean, Telefonikak Sopelan kiroldegitik hurbil daukan eraikina atontzen dabilta Telxius enpresako beharginak, kablea iristen denerako. Urpeko kableak 6.600 kilometroko luzera izango du, eta Sopelatik helduko da Europaraino. AEB eta Europa lotuko dituen ka-



© SOPELA UDALA

ble hori Ekialde Hurbileko, Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako beste sare batzuek elkar konektatuta egongo da; 160 terabit segundoko igorriko ditu. Telefonica, Facebook eta Microsoft dira horren bultzatzaileak. ◀

Udako ordutegira egokituko da Sopelbus, ekainean

Sopelako auzoak metro-geltokiakaz eta hondartzakaz lotzen duen autobus-zerbitzuak udako ordutegia izango du irailaren 30era arte; eguerdian, atsedean hartu barik, gainera. Udal-iturriek azaldu dutenez, astelehenetik barikura, 07:00etatik 08:45era, ohiko neguko ordutegia ezarriko da; udako ordutegian, berriz, egunero (aste-akabuak barne), 10:00etatik 20:30era, sopeloztarrek eta bisitariek autobus-zerbitzu bi erabili ahal izango dituzte. Lehenengoa egoitza irten eta Atxabiribileko aparkalekura helduko da; bigarrena, Larrabasterratik irten eta Arriatera hondartzaraino. Biek ordu erdiko maiztasuna izango dute. ◀

Liburutegian eta Kurtzion ipini dituzte ikasteko gelak

Ekainaren 25era arteko aste-akabuetan, goizean eta arrastian zabalik egongo da Kurtzio kultur etxe-ko ikasketa-gela: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Ekainaren 26an, 27an, 28an eta 30ean, ostera, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara joan ahal izango dira ikasleak; ekainaren 29an itxita egongo da Kurtzioko ikasketa-gela. Azkenik, uztailearen 1ean eta 2an, uda hasierako ordutegia izango du. Udal-liburutegiari dagokionez, ekainean, astegunetan egongo da zabalik (09:30-13:30 / 16:30-20:30) ikasteko gela; barikuetan, 19:45ean itxiko dute eta, uztailean, goizez baino ez dute zabalduko. ◀



Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

Ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 33. artikuluan eta Ander Deuna Ikastola Koop. Elkartearen Estatutu Sozialak 25. artikuluan ezartzen dutenaren arabera, Ander Deuna Ikastola Koop. Elkarteak Arteakirritza Kontseiluak, 2017ko maiatzaren 28an egindako bilan zera erabaki du:

Ohiko Batzar Nagusirako deia

Data: 2017ko ekainaren 15a.

Lekua: Ander Deuna Ikastolako Areto nagusia.

Ordua: 18:00etan lehen deialdian.

18:30ean bigarren deialdian.

GAI ZERRENA:

1. Batzar Nagusiaren hasiera.
2. Batzar Nagusiko Akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
3. 2016. ekitaldiko urteko kontu eta gestio biostenaren aztertzeta eta onartzea. Emaitzaren aplikazioa. Honekin batera auditoritza biostenaren berrespena.
4. 2017. urteko kudeaketa planari buruzko txostenaren inbertsioak.
5. Bazkide berrientzako 2017-18 ikasturteko derrigorrezko ekarpena eta erabiltzaileen aldizkako kuota onartzea, horrela badagokido.
6. Kontu-ikuskariak izendatzea.
7. 2017-18an Ander Deuna Ikastolaren 50. Urteurrena.
8. 2021ean ibilaldia Sopelan Betiko Ikastola eta Ander Deuna Ikastolaren eskutik.
9. Bertaratutakoek euren iritzia agertzeko banda.



Berango

Nagusien ongizatearen aldeko apustua egin du Udalak

Udalerriko pertsona nagusien bizi-egoera eta ezaugarriak ezagutzeko eta deskribatzeko asmoz, Pertsona Nagusien Udal Behatokia martxan jarri dute. Urteko lehenengo hilabeteetan udalerrian egin ziren elkarrizketen bidez jasotako informazioa aztertzen du behatoki horrek. Helburua da arriskuan, edo tratu-txar-, utzikeria- edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonak identifikatzea. Elkarrizketen emaitzak aztertu ostean, ehun ekin-tza inguru ezarri ditu Udalak. «Nabarmendu beharra dago ez dela inolako tratu-txar egoerarik edo utzikeriarik antzeman», azpimarratu du Nerea Ji-



info+: www.berango.net

menezek, Berangoko Udaleko Gizarte Ongizate Saileko arduradunak. Urtero errepikatuko dituzte ekarizketak, pertsona horien bilakaeraren eta joeraren berri izateko. ◀

Jarduera ekonomikoa garatzeko esparrua, irailean, martxan

Enpresa batzuk irailean jarriko dira emartxan Berangoko jarduera ekonomikoko Landaideko esparruan. Hori dela eta, enpresa horiek lanpostu berriak eskainiko dituzte. Daborduko, lehenengo lan-eskaintza zabaldu dute, Burger King janari lasterreko katearena, beren-beregi. Lan-eskaintza horien berri emateko, Udalak etxetik etxetik bidaliko du informazioa, enpresa bakoitzak hautagaiak aukeratzeko erabiliko duen sistema azaltzeko. Edozelan ere, udal-arduradunek gomendatu dute lan bila dabiltzanek euren curriculum pertsonala eguneratua izatea Behargin-tzan edo Enplegu Zentroan. ◀

Kale-liburutegia martxan, Simon Otxandategi kalean

Berangoztar denek artean irakurketarako bultzatzeko ekimena martxan ipini dute: Liburutruk. Kale-liburutegi horrek irakurketaren eta ideien trukea bultzatzea du helburu. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, euren asmoa da «parte-hartzaile bakoitzaren interesetik abiatuz, irakurtzeko motibazioa eragitea». Gainera, herritarren parte-hartzea bultzatu gura dute; horretarako, hainbat kultur elkarte, ikastetxe eta dendagaz elkarlanean jardungo dute. Kale-liburutegiaren abiapuntua Simon Otxandategi kalean dagoen kioskoa izango da. ◀

info+: www.berango.net

Barrika

Kostaldean ezin izango da eraiki

Muriola-Barrikabaso eremu urbanizaezin izendatu du behin betiko Bizkaiko Foru Aldundiak. Hala ere, bertan dauden hamalau txaletak mantentzea onartu du.

Bizkaiko Foru Aldundiak behin betiko onartu du Muriola-Barrikabaso eremuaren arau subsidiarioen aldaketa puntuala. Hala, inguru horretako lursailetan ezin izango da gehiago eraiki, eta ingurua lehengoratzeko beharrezkoa da. Hala ere, eraikitako 14 txaletak bere horretan uztea ahalbidetuko du. Espainiako Auzitegi Gorenak legez kanpotzat jo zituen luxuzko txalet horiek, eraikuntza baimentzeko lurren kalifi-

kazioa legez kanpokoa izan zelakoan. Paisaia-interes handiko lekua da, eta «babes bereziko gune» izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak Barrikabaso; hortaz, ezin zen lurrotan eraiki. Txipio Bai talde ekologistak hori guztia salatu zuen, eta epaiek birsailkatze hori legez kanpotzat jo zuten. Azkena, EAEko Auzitegi Nagusiak ebatzi zuen; horren arabera, Udalak eta Aldundiak 1,5 milioi euroko kalte-ordaina eman behar diote hiru enpresa eraikitzaileei. ◀



Babes bereziko gune izendatu dute Barrikabaso ingurua.

Txikienentzako udaleku irekiak antolatu ditu Udalak

Aurtengo ikasturteko eskolak amaitzeaz daude, eta gure inguruetako neska-mutilek udako oporrak izango dituzte laster. Hori dela eta, Barrikako Udalak etxeko txikienentzako eskaintza zabala prestatu du udaldirako. Udaleku irekiak ekainaren 26tik uztailaren 7ra bitartean egongo dira. Ordutegiari dagokionez, berriz, 09:30etik 14:00-14:30era izango da; ordubete lehenago sartzeko aukera egongo da, baina udalekuen prezioa 12 euro garestiagoa izango da, udalerrian errol-datuta ez dauden kasuan, berriz, tarifa 20 euroan garestituko da. Egun osoko txangoak daudenean, irteera ordua 17:30etik 18:00etara artekoa izango dela ohartarazi dute antolatzaileek.

Udaleku irekiak 4 eta 10 urte arteko neska-mutilei zuzenduta daude eta, besteak beste, hainbat tailer, txango, jolas, ikuskizun, irteera eta kirol-ekintza egingo dituzte.

Prezioari dagokionez, Barrikan errol-datuta daudenek 81 euro ordaindu beharko dute hamabostaldi osoan parte hartzeko. Aste bakarrean egoitea ere egongo da aukeran, ekainaren 26tik 30era, edo uztailaren 3tik 7ra, 45 euroren truke. Anai-arreben kasuan, berriz, ume bakoitzagatik 71, 5 euro ordaindu beharko da hamabostaldigatik, eta 38,5 euro asteko egonaldigatik. Udalerrian errol-datuta ez daudenek, bestalde, 135 euro ordaindu beharko dituzte hamabostaldigatik. ◀



Uribe Kostako historiaurreko aztarnategiak ezagutzeko asmoz, Barrikako Kurtziomendi inguruetan izan da William Fitzhugh antropologo estatubatuarra, arkeologian aditua den Iñaki Libano barrikoztarrak gidatuta. Fitzhugh-en arabera, «garrantzi handiko guneak» daude bertan.



Tximiskeriak!!

AITOR
GARAGARZA CAMBRA
Langilea

«Ez dakit zer pasatzen den azken aldi...»

Udako jaiak heltzear daude hainbat herrietara eta azkenengo urteetan zenbait eztabaida piztu dira, jai giroan ezinbestekoa den musikaren inguruan. Eztabaida zabala, sakona eta korapilatsua dugu. Eztabaidari heltzeko galdera bat botako dizuet: 80. hamarkadatik gerora Rock Radical Vasco deitu izan zena barneratu izan ez bagenu? eta txosnetan Mikel Laboa, Benito, Pantxoa eta Peio... soilik entzuten jarraituko bazen? Herri mugimenduan bila-kaeran zein eragina izango luke?

Euskal Herrian oraindik 80. hamarkadako aje musikarekin gaude, sorkuntzarako haize kutsatua eta eszenan beste musika estilo batzuk barneratzeko zailtasunak ekarri duena. Nahiz eta azkenengo urtean haize fresko apur bat sartu den, musika elektronikoa, hip-hop edo reggetoia, besteak beste, guztiz profanoak bihurtu ditugu gurean. Estilo horiek errefusatzeko hainbat argudio entzun izan ditugu: drogen kontsumoa dela medio, hizkuntza, sexismoa, estilo arrotzak, komertziala... Akaso, «euskaldun garbiak» izan gara?

Gainera, musika entzuteko eta bizitzeko formak aldatu egin dira. Musika lineala ez dela onartuta, herri mugimendua ezin daiteke egon «XXI. mendeko Pantxo eta Peio» eskaintzen behin eta berriz gure jai espazioetan. Nire ustez, musika bakoitzak bere espazioa izan dezake, ez da berdina kontzertuan eskaini ahal duzuna, kontzertu osteko musika txosnetan... Arazoa aspalditik dator, ajeak oraindik darrai eta ez gara kapazak izan beharrezkoak diren tresnak sortzeko, behintzat, irteera-parrilan ondo kokatuta egoteko baldintzak. Euskal Herria hain erradikala bezain kontserbadorea, beste estilo batzuk barneratzeko eta sustatzeko ezinbestekoa dugu g(h)erria askatzeko. ◀

Plentzia



Joan den urteko urrian etorri ziren gurera Placentiako ordezkariak.

Placentiagaz senidetu da Plentzia

Behin betiko senidetze-hitzarmena Kanadako herrian sinatuko dute, hilabete honetan bertan.

Joan den maiatzaren 25eko osoko bilkuran, Plentziako Udalbatzak aho batez onartu zuen Placentia (Kanada) eta Plentzia herrien arteko senidetzea. Helburuetako bat da herri bien arteko lankidetzaren bultzatzea, adiskidetasun-loturak indartzeko eta harremanak ugartzeko.

Herri biak senidetzeaz gainera, Plentziako Udalak jakinarazi du ekainean espedizio bat egingo dela itsasontziz Ternua eta Labradorren barrena, «kultur ibilbide berri bat za-


baltzeko, euskal baleazale eta bakailaozaleek XVI. mendean geroztik utzi duten historiari eta ondareari garrantzia emanez». Espedizio horrek Placentia bisitatuko du, besteak beste, eta bertan sinatuko eta egingo da Plentzia eta Plentziaren arteko behin betiko senidetze-hitzarmena, herri bietako agintariakaz eta herritarrakaz batera.

Kanadako Placentia eta Uribe Kostako Plentzia senide izendatzeko prozesua joan den urriaren 14an hasi zuten. Hori bideratzeko, Wayne Power Placentiako alkatea eta Noella Collins Kultura eta Turismo zinegotzia etorri ziren gurera. Besteak beste, herri bien arteko lotura historikoen inguruan berba egin zuten, Sabino Laucirica historiagilea bertan zegoela. ◀

Gorliz

Datorren urteko udan, TAO ezartzea aztertzen dabil Udala

Uda sasoian, ohikoa da kostalde-
ra hurreratzea hondartzetako freskotasanaz gozatzerako. Uribe Kostako hareatzetara datozenak asko dira, eta horietako nahikotxok metroa edo autobusa erabiltzen badute ere, badira gurera autoz edo beribilez etortzen direnak. Horrek hainbat arazo eragin ohi ditu, berbarako auto-pilaketak eta aparkatzeko arazoak, udal-erri txikietan, batez ere. Horri aurre egiteko, Sopelako Udalak TAO sistema ezartzen du udaldian hondartzetako aparkalekuetan eta, orain, aukera hori aztertzen dabil Gorlizko Udala. Hala, baliteke 2018ko udarako sistema hori



Hondartzaren inguruan ezarriko litzateke.

udalerrian ezartzea, maiatzetik urrira bitartean, asteko zazpi egunean. Izan ere, Udalak TAO ezartzeko ordenantza onetsi du; baina, oraindino, alegazioak aurkez daitezke. ◀

Urteurren berezi baterako logotipo bila dabilta

Trena Plentziara heldu zeneko 125. urteurrena ospatzeko asmoa dute 2018an. Horren harira, egitarau berezia prestatzen dabilta, datorren urtean egingo diren askotariko ekitaldiak jasotzeko. Abiapuntu legez, herritarren partaidetzaren bidez aukeratuko dute urteurrenaren irudia izango den logotipoa. Bost proposamen daude, eta horietatik gustukoena aukeratzeko aplikazio informatiko batera sartu beharko da. Hala, parte-hartzaileek 1893an inauguratutako burdinbide-linean zeharreko bidaia izango dute irudikatuta. Hilabete osoan eman ahal izango dute botoa, eta irabazle suertatuko den proposamena uztailan ezaugaraziko dute; irailean aurkeztuko dute logotipo irabazlea jendaurrean, ekitaldi batean. Orduan, gainera, 2018ko ekitaldien egutegia ere ezaugaraziko dute, baita 125. urteurrenaren bideoa eta kartela ere. ◀

Plentziako Udalak lokal bat utzi dio Ambar elkarteari

Plentziako Udalak Arpillao eraikineko 7 zenbakian dagoen lokala utzi dio Ambar itsas faunaren ikerketa eta babeserako elkarteari. Hala erabaki zuen Udalbatzak, aho batez. Ambar elkartearen biologian, albaitaritzan, ozeanografian eta beste askotariko arlo zientifikoetan adituak diren gizon-emakumeak daude, baita itsas faunarekiko interesa duten beste asko ere. Elkartea 1998an jaio zen, eta bere helburua da itsas faunaren interesa eta ezagutza bultzatzea. Horretarako, azken urteotan hainbat ikerketa zientifiko egin dituzte. Era berean, dibulgaziorako eta babeserako zenbait ekintza egin dituzte. ◀

info+: ambarelkarte.org

Foru Aldundiaren kudeaketa deitoratu du EH Bilduk

EH Bilduk jakinarazi duenez, Plentziako Udalak 343.000 euro gutxiago izango ditu aurten, «Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa txarragatik». Azaldu dutenaren arabera, Aldundiak zergen sarreraren aurreikuspen «ezegokiak» egin dituenaz, «kantitate falta horren konpentsazioa udalen derrigorrezko itzulerarekin doitu da Udalkutxa». Udalak 213.000 euro itzuli ditu aurten, eta 130.000 gutxiago jasoko ditu. ◀

Uribe Kosta

Getxon batu dira Eudelen ordezkariak, Batzar Nagusian

Euskadiko Udalen

Elkartearen urteko Batzar Nagusian batu ziren EAEko alkateak, Getxoko portuan, ekainaren 1ean.

Getxoko alkate Imanol Landa da Eudelen presidentea, eta udalerrian antolatu zuen elkartearen urteko Batzar Nagusia. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udal-agintariez gainera, bilerara gonbidatu zituzten beste erakunde bi: Eusko Jaurlaritza eta Europako Kontseilua (Toki eta Eskualde Botereen Kongresuko agintari Gudrun Mosler- Törnströmek ordezkatu zuen). Elkarteburua izanda, Landak adierazi zuenez, «Eudelek bere burua eskaintzen die udalei Europarekiko lotura-portua izateko eta Euskadin tokiko autonomiaren zaindari izateko». Bere esanetan, «udalen ahotsa entzun



Getxoko itsas bidaia-ontzien portuan egin zuten bilera.

behar du Europak», Europa berritzeko «giltzarritzat» jo zuen «tokiko demokrazia»; bere ustez, «iritsi zaigu ahalduztzeko unea». Eudelen egiturazko

erronka biak ere aipatu zituen: Toki Erakundearen Legea garatzea eta udal-eremuko kontsentsuaren erreferentetzat betetzen duen zeregina sendotzea. ◀

Itsasadarreko bidegorria Espainiak egitea eskatu du Aldundiak

Bilbo eta Getxo arteko Nerbioi ibaia-ren ondoan doan errepidearen % 86 Espainiako Sustapen Ministerioarena da, Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko forudiputatuak gogoratu duenez. Horren berri eman zuen joan den maiatzaren 31n izandako Batzar Orokorren saioan, Gernikan. Hori dela eta, esan du Espainiako Gobernuari dagokiola errepide horretan aurreikusten den bidegorria egiteko kostu dena. Modu berean, Pradalesek azaldu du Leioa eta Erandio udalerrietatik igarotzen diren bidezatiak (1.734 eta 3.552 metro luzekoak, hurrenez hurren) oraindino ez zaizkiela udal horiei biei transferitu. Horren harira, azpiegitura horien emate-prozesuak egikaritzen direnean, eskumenak ematen dizkietenean, forudiputatuak eskatu du ez dadin izan «inola ere zama bat» udal horientzat bientzat. ◀

Lemoiz

Euskara Plana berritzeko proposamenak jasoko dituzte

Lemoizen Euskara Sustatzeko Ekin-tza Plan berria garatzen dabilta Udala eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzua. Jakinarazi dutenez, «Lemoizko euskara-plan berria diseinatzeko herritarren ideiak, ekarpenak, egitasmoak... jaso nahi ditugu; herrian euskaraz bizi ahal izateko zuon ekarpenak ezagutu nahi ditugu». Lemoizko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) 2018tik 2021era bitartean egongo da indarrean; horrenbestez, lemoiztarrek orain egin beharko dizkiote planari ekarpenak. ESEPk hiru esparru nagusi dauzka, honako hauek: Euskararen jabekun-

tza edo ezagutza, Euskararen erabile-ra eta Euskararen elikadura; horietako bakoitzak hainbat atal dauzka. Horien inguruko proposamenak eta ekarpenak posta elektronikoaren bidez jasoko dituela adierazi du Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak.

Besteak beste, Euskara Zerbitzuak euskara-planak diseinatzeko ditu Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea osatzen duten hainbat herritan; hau da, Barrikan, Gorlizen, Lemoizen, Plentzian, Sopelan eta Urdulizen. Euskara Zerbitzuari dagokionez, Berango ez dago horren barruan. ◀

harremanetarako: euskeraz@uribekosta.org

Urduliz

Neinor Homes sustatzaileak 370 etxebizitza eraikiko ditu

Hiru gunetan, denera 370 etxebizitza eraikiko ditu Neinor Homes etxebizitza-sustatzaileak. Urduliz Hiria izenpean, Neinor Homesek hiru eredu ezberdinetako etxebizitzagune bana sortuko ditu: Hiriko Etxebizitzak, Diseinuzko Etxebizitzak eta Natura Etxebizitzak (Urban Homes, Design

Homes eta Natura Homes). Lehenengo gunea Aita Gotzon kale nagusian egongo da; 179 etxebizitzek osatuko dute, guztira. Bigarren gunea Kareabi kalean egongo da, eta 111 etxebizitza izango dira, denera. Hirugarrenean, «naturatik hurbilen» egongo den gunean, 80 etxebizitza egingo dituzte. ◀

Unibertsitatea



Sexu-erasoa salatzen Leioako campusean egindako elkarretaratzea, ekainaren 1ean.

EHUren campusetara sartzeko debekua ezarri diote

EHUk diziplina-espedientea zabaldu, eta bere campusetara sartzeko debekua ezarri dio ikaskide bati sexu-erasoa egitea egotzita atxilotu zuten ikasleari. Maiatzaren 26an atxilotu zuten Arte Ederren Fakultateko ikaslea, Bilbon; «erasoa azaroan» gertatu zela salatu du emakumeak. «Erasoa jasan dutenei elkartasuna eta halako erasorik ez dutela onartzen adierazteko», ekainaren 1ean elkarretaratzera deitu zuten ikasle-mugimenduak; ehunka la-

gun batu ziren. Ikasle-mugimenduak salatu zuenez, ez da kasu bakarra izan: «Hiru urtean inpunitate osoz emakumeak erasotzen ibili da, EHUko eraso sexisten aurkako prebentzio-protokoloak alferrikakoak direla erakutsiz». Gertatutakoa ezagutzean protokoloa abiarazi zuela jakinarazi du EHUk. Errektoretza eta fakultateko taldeek bat egin zuten elkarretaratzeagaz, baita LAB sindikatuak ere, besteak beste. ◀

info+: hiruka.eus/leioa



«Kulturgintzaren eta herrigintzaren eredu propioa garatu nahi bada, Txillardegik ezinbesteko pentsalaria dugu», Jakinen ustez. © JAKIN FUNDAZIOA

Txillardegik, sarean

Jakin Fundazioak Jose Luis Alvarez Enparantza pentsalariaren bi mila idazlan inguru digitalizatu ditu.

Euskal Herriko historian leku berezia duen pentsalari, eragile eta idazlea izan zen Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* (Donostia, 1929-2012); euskararen estandarizazioan, euskal kulturaren modernizazioan eta nazioaren zein

hizkuntzaren arteko loturaren ikuspegiari aitzindari izan zen, politikaren zein kulturaren esparruan. Horregatik erabaki du Jakin Fundazioak bere obra osoa bilatzea, arakatzea, txukuntzea eta digitalizatzea, eta sareko atari berezi batez herriar guztien esku

ipintzea. «Euskal pentsamenduan izan diren diskurtso berritzaileak ezagutzeari garrantzitsua da, kulturgintzaren eta herrigintzaren eredu propioa garatu nahi bada. *Txillardegik* ezinbesteko pentsalaria dugu horregatik», uste du Lorea Agirre Jakineko zuzendariak.

Hiru urte eman ditu Jakinek *Txillardegik* lan osoa digitalizatzen; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura

Sailaren eta Jakin Fundazioaren arteko hitzarmenari esker egin ahal izan dute digitalizazioa. «Guztira, 1.984 idazlan eta 23.591 orrialde digitalizatu dira», azpimarratu du Joan Mari Torrealdaik. «Horietatik, 1.634 idazlan dira Txillardegik berak idatzitakoak. Esaterako, 40 dira liburuak eta 1.352 artikulatuak», gaineratu duenez. Lehenengo dokumentu digitalizatuak 1956koak dira, *Egan*, *Euskera* eta *Euzko Gogoa* aldizkarietan argitaratutako artikulatuak. Dokumenturik berrienak, oster, 2010 eta 2011koak dira: *Hizpide* eta *Argia* aldizkarietan idatzitako artikulatuak. Gainontzeko argitalpen digitalak, oster, *Txillardegik* egindako elkarrizketak edo bere obraren inguruko azterlanak, erreseinak eta beste-lako idazlanak dira; 350, guztira.

Lan oparoa

Obra oparoa da, kopuruz zein edukiz; euskara, soziolinguistika, hizkuntza minorizatuak, sozialismoa, existentzialismoa, nazio-arazoa eta beste hainbat gai lantzen dira *Txillardegik* obran. Horiek guztiek osatzen dute Jakinek martxan ipini duen sareko atari berezia. Hala ere, *Txillardegik* inguruko ataria proiektu zabalago baten barruan dago. Besteak beste, *Txillardegik* obra hedatzeko, liburu-bilduma eta ikus-entzunezkoak osatuko ditu Jakinek hilotan. Bere lana gazteengana hurreratu gura dute. ◀

info+: www.jakin.eus/txillardegik

Kattalin Minerren lehenengo liburuaz berba egingo dute, Sopelako Irakurle Klubaren saioan

Kattalin Miner Perezek (Hernani, 1988) idatzitako *Nola heldu naiz honaino* (Elkar, 2017) eleberria aukeratu du Sopelako Irakurle Klubak, ekaineko saiorako. Hala, irakurzaileak Kurtzio kultur etxean batuko dira gaur, eguena, ekainaren 8an. Hitzordua 19:30ean ipini dute; sarrera, doan. 2015eko Igartza Literatur Beka irabazi zuen Minerrek *Kafe beteak* proiektuagaz. Urtebeteko epea izan zuen liburu idazteko: 2017ko otsailaren 16an aurkeztu zuten *Nola heldu naiz ni honaino*. Emakume arrakastatsu baten nora eza aurkezten du eleberri honek: «Jezabelek gora egin du enpresan, espero ez zuen herentzia bat ere jaso du, eta, horri esker, etxe bat erosi du. Lanean zein bizitzan, etengabe erabakiak hartzen ohitua dago, eta zirt-zart egin ohi du, zalantza handirik gabe. Hala ere, txikieria baten aurrean paralizaturik geratuko da halako batean, aurrera egin ezinda». ◀

Erandioko milizianoek «ahotsa» eman gura diete, ekainaren 15ean, berbaldi baten bidez

Ramón Rubial Fundazioak berbaldia antolatu du, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean; Geografian eta Historian lizentziaduna den Mentu González Gerrak hitza hartuko du, ekainaren 15ean, eguenean. *La guerra civil en la ría de Bilbao: Erandio y la voz de sus milicianos en el frente* izenburua ipini diote saioari. Gaztelaniaz izango da, 19:00etatik aurrera; sarrera, doan. Hizlariari dagokionez, lanbidea artxi-boen eta dokumentazioaren alorrera bideratu zuen, eta arlo akademikoan espezializatu zen ondoko ikasketa hauek eginda: Artxibistika masterra (EHU); Ondare Historikoaren, Artxi-boen, Liburutegien eta Museoen Dokumentazioan eta Kudeaketan diplomatura (Deustuko Unibertsitatea); eta Dokumentazio Digitalean graduondokoa (Pompeu Fabra Unibertsitatea). Eten barik eguneratzen du bere presakuntza akademikoa artxi-boakaz, liburuakaz eta dokumentuakaz. ◀

Umeen abesbatzen jaia egingo dute, Algortan



Lilura abesbatzako neska-mutilek ere kantatuko dute. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Getxo Txiki Kanta haur-abetesbatzen jaialdia egingo dute lehenengo aldiz, domeka honetan, ekainaren 11n. Hala, sei taldek kantatuko dute, 17:30etik aurrera, Algortako Biotz Alai plazan. Horietako hiru getxoizarrak dira: Txaramela, Lilura eta Biotz Alai Txiki. Gainerakoak, os-

tera, kanpokoak dira: Kinder (Kantabria), Basauri Txiki eta Txiki Tantik (Mungia). Lilura abesbatzak antolatu du jaialdia, Getxoko Kultur Etxeagaz batera. Ekimenaren helburua koruen musika belaunaldi berrien artean bultzatzea da, eta abeslari gaztetxoek lana erakustea ere bai. ◀



Besarkada federazioa osatzen duten bost konpainiek antzeztzen dute *Siempre Gila*. © BESARKADA FEDERAZIOA

GETXO

Gila akorduan izango dute hamalau emakumek

Besarkada federazioa osatzen duten bost konpainiak elkartu egin dira Miguel Gila Cuesta (Madril, 1919 - Bar-tzelona, 2001) umorearen maisu handiari gorazarre egiteko. Hamalau emakume banan-banan agerleku-ra igoko dira umorista madrildarrak bere garaian egindako monologo os-petsuenak akordura ekartzeko: *Ez-kontza*, *Nire birraitona*, *Balaren as-*

matzailea, *Nire bizitzaren benetako istorioa*, *Aholkularitza esoterikoa*, eta abar. *Siempre Gila* antzezlana maia-tzaren 28an aurkeztu zuten, Astrabu-duko Josu Murueta kultur etxean.

Oraingo honetan, Areetako An-dres Isasi musika-eskolan antzeztu-ko dute, domeka honetan, ekainaren 11n. Hitzordua 19:00etan ipini dute; daborduko salgai daude sarrerak, 3

euroan. Besarkada federazioari dago-kionez, hainbat proiektu bultzatzen ditu, betiere bide berriak zabaltzeko guran eta bere kideen artean sortzen diren jakin-gura artistikoei erantzuna emateko. Oraingoan, monologoen ar-tean murgildu dira, eta ikuskizun hau neurrira diseinatu dute; umoreaz ko-munikatzeko artea landu gura zuten, emakumeen ikuspegiaz baliatuz. ◀

ANTZERKIA

EKAINAK 9, BARIKUA

Kontularien Kluba

19:00 | Algotako kultur etxea | Getxo

Ipuinak kontatu edo istorioak entzun gura dituztenek osatzen dute. Gaztelaniaz. Doan.

Afari Akustikoa

20:00 | Kalezulo gaztetxea | Erandio

Poteoaren ostean, *Eingo al deu?* antzezlana eskainiko du Atara Zarata taldeak, 20:30ean, euskaraz. Aflaria 22:00etan izango da, 5 euroan.

Bang! antzezlana

22:00 | Plaza Beltza kulturunea | Sopela

Sarrera, doan. Informazio gehiago: plazabeltzainfo.wordpress.com

AZOKA

EKAINAK 9, BARIKUA

Bigarren eskuko azoka

11:00-15:00 | Jauregizar plaza | Sopela

Aste Berdea. Parte hartu gura izanez gero, izena ematea beharrezkoa da. Informazio gehiago: ekogune@uribekosta.org

BERBALDIAK

EKAINAK 8, EGUENA

Berbaldi musikatua, Anarigaz

19:30 | Azebarri kulturunea | Getxo

Haziak gazte-antolakunde feministak eta Egizu euskara-taldeak antolatuta. Euskaraz. Doan.

Vulneración de derechos de las trabajadoras del hogar

19:30 | Plaza Beltza kulturunea | Sopela

Exeko Langileen Elkarteagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

EKAINAK 9, BARIKUA

Uribe, harrera herriak zergatik ez? batzar informatiboa

19:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteagaz. Doan.

DANTZA

EKAINAK 11, DOMEKA

Dance GM elkartearen saioa

17:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Ikasturte-akabuko emanaldia egingo dute.

Sarrera, doan.

Ikasturte-akabuko emanaldia

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Udal Dantza Eskolako ikaslegaz. Doan.

EKAINAK 14, EGUAZTENA

Getxo barria

18:00 | Karmengo eliza (Neguri) | Getxo

Ibilbide toponimikoak. Bizarra Lepoanegaz. Euskaraz. Doan. Izen-ematea: 688 635 350

IKASTAROAK

EKAINAK 13, MARTITZENA

Argazki-edizioa

19:30 | Atxutegi kalea, 15 | Erandio

Astrabuduko Fotoclub elkarteagaz. Doan.

JAIAK

EKAINAREN 9TIK 11RA

San Bernabe jaiak

Faeta auzoa | Erandio

Familia-giroan gozatzeko aukera egongo da. Informazio gehiago: www.erandio.eus

EKAINAK 10, ZAPATUA

Ulertuz Eguna

11:00 | Josu Murueta plaza | Erandio

Takolos irati-klubak paella solidarioa (5 euro plater bakoitzeko) egingo du. Dirua Bizkaiko ume gorren lagunen eta senideen elkarteari emango diote. Horrez gainera, postreen lehiaketa eta herri-ginkana egongo dira.

Kuadrilla Eguna

12:00 | Santa Eugenia plaza (Romo) | Getxo

Besteak beste, txupinazoa eta poteoa (12:00), herri-bazkaria (15:00), bingo musikatua eta jolasak (17:00), eta karaokea (18:00) egongo dira. Bazkarirako txartelak La Mona tabernan egongo dira salgai, 8 euroan, ekainaren 8ra arte; egunean bertan, 12 euroan eros daitezke.

EKAINAREN 10ETIK 13RA

San Antonio jaiak

Martiartu-Golerrri | Erandio

Familia-giroan gozatzeko aukera egongo da. Informazio gehiago: www.erandio.eus

EKAINAK 11, DOMEKA

Jai solidarioa

11:00 | Mendiguren plaza | Erandio

Gizarte Unamaz Alkartuak 30. urteurrena ospatuko du. Puzgarriak, umeentzako jolasak, ikuskizuna eta txosna egongo dira. Irabaziak Sotiarazi elkarteari emango dizkiote.

EKAINAREN 12TIK 18RA

Euskal Astea

Astrabudua | Erandio

Trabudu Dantzari Taldeagaz. Euskal dantzen eskola magistralak, erakustaldiak, herri-bazkaria eta dantzaldia egingo dituzte. Informazio gehiago: tiavud.com/ubemakv

Abesbatzen saioa egongo da, barikuan

Plentziako Iraunkor eta Barrikako Aita Gotzon abesbatzek kantaldia eskainiko dute, bariku honetan, ekainaren 9an, BBKren Udagoieneko Kontzertuen baruan. Andra Mari elizan kantatuko dute, 20:00etan; sarrera, doan. ◀

Kirolek herriko plazak hartuko dituzte

Algortako Biotz Alai eta Telletxe plazak askotariko kirolen jokalekuak izango dira aste-akabuan, ekainaren 9an (arrastian) eta 10ean (goizean), Getxo Kirolak udal-erakundearen VI. Street Culture Jaialdia dela eta. ◀

Bertoko historia eta istorioak ezagutzeko

Leioako historia eta istorioak ezagutzeko aukera egongo da, domeka honetan, ekainaren 11n, Boulevarden. Herrigutonek Ezagutzen Azoka egingo du bertan, 11:30etik 13:30era arte; sarrera, doan. ◀

izen-ematea: herrigune.org



Zaldien gainean paseotxoa egiteko aukera izango dute neska-mutilek. © POTTOKA PROIEKTUA

Pottoka Eguna egingo dute, Lemoizen

Goikomendi zaldi-klubak Pottoka Egunaren bosgarren edizioa egingo du; ohi den legez, hipika-taldeak berak antolatu du, Bizkaiko Pottoka hazleen elkarteak emandako laguntzagaz. Besteak beste, erakusketa didaktikoa eta pottokakaz paseoa emateko aukera egongo da. ◀

Noiz: Ekainak 11, domeka.
Ordua: 10:00-15:00
Non: Goikomendi zaldi-kluba (Andrakako gaina).
Sarrera: Doan.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

EKAINAREN 8TIK UZTAILAREN 23RA ARTE

Ikasleen lan-bilduma

Kultur Leioako erakusketa-gela | Leioa
Ikasurte honetan Kultur Leioan artea, artisautza eta sorkuntza landu dituzten ikasleen lanak ikusgai izango dira. Hainbat diziplina batu dituzte: besteak beste, pintura (olioa, akrilikoa, akuarela, pastela), zeramika, zahaiberritzea, zur-lanketa, argazkilaritza, ebaketa eta jantzigintza eta kontaketa. Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

EKAINAREN 9RA ARTE

¡Nunca más! Imágenes de guerra (1936-1939)

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Sabino Arana Fundazioak Leyre Arrieta eta Miren Barandiaran historialari gipuzkoarrei egindako eskariaren emaitza da. Ikusgai dauden 22 horma-irudietan, 200 irudi eta 100 aipamen baino gehiago agertzen dira. Astelehenetik barikura. Sarrera, doan.

EKAINAREN 11RA ARTE

Leioaren 15 urteko konpromiso solidarioa Dominikar Errepublikarekin

Kultur Leioa | Leioa
Edex fundazioak antolatuta. Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

La magia de la diversidad

Kultur Leioa | Leioa
Vicente Ferrer fundazioak antolatuta. Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

Urerako eta saneamendurako giza eskubidea

Kultur Leioa | Leioa
Zabalketak antolatuta. Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

EKAINAREN 15ERA ARTE

Getxoko memoria kolektiboa

Torrene Aretoa eta kultur etxea | Getxo
Erakusketak zati bi ditu: Begoñako galerietako historiagaz lotutako pertsonen testigantzak, Torrene Areloan; eta galeriak berreskuratzeko aurrekustitako esku-hartzeak, Algortako kultur etxean. Doan.

IBILALDIAK

EKAINAK 10, ZAPATUA

Punta Begoña

09:30 | Begoñako galeriak | Getxo
Ibilbide toponimikoak. Bizarra Lepoanegaz. Euskaraz. Doan. Izen-ematea: 688 635 350

JOLASAK

EKAINAK 8, EGUENA

Ilusio optikoa

17:30 | Ontziola plaza | Plentzia
Euskaraz Olgetan. Ondorengo egunetan, Urdulizko Antsonekoa plazan (17:30), Gorlizko Ibarreta plazan (12:00) eta Sopelako lauregizar plazan (12:00) egingo dituzte jolasak.

EKAINAK 10, ZAPATUA

Natura bizirik

11:30 | Lauregizar plaza | Sopela
Aste Berdea. Umeentzako tailerrak eta familiarteko ekoginkana. Doan.

Olgetan Solas

18:30 | Faoeta auzoa | Erandio
Familiarteko kirol-jolasak. Euskaraz. Doan.

EKAINAK 12, ASTELEHENA

Familian: euskal baleontzia

17:00 | Urizarreko eskola | Lemoiz
Euskaraz Olgetan. Sarrera, doan.

MUSIKA

EKAINAK 10, ZAPATUA

Kinto Kontenedor eta Kalera

21:00 | Plaza Beltza kulturgunea | Sopela
Sarrera, doan.

Rap Jaia

21:00 | Kalezulo gaztetxea | Erandio
Bilbao Kalaña eta Hardcore.exe rap-kantariek abestuko dute. Sarrera: 3 euro.

ZINEMA

EKAINAK 10, ZAPATUA

Piratas del Caribe: la

venganza de Salazar

18:00 | Kultur etxea | Urduliz
Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Astelehena

20:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Kurtzio kultur etxeko antzerki-tailerreko ikasleek egindako film laburra. Euskaraz. Sarrera, doan.

EKAINAK 12, ASTELEHENA

Pride

18:30 | Algortako kultur etxea | Getxo

Enclave emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Proiektzioaren ostean, berbaldia egongo da.

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Betebehar batzuk

Parte hartzeko

Bizkaian egon behar dute bizitzen edo, gutxienez, taldekide batek lurralde historikoan erroldatuta egon behar du.

Estiloak

Metalaren, poparen edo rockaren estilo guztiak onartuta daude, jazzza izan ezik. Kontuan hartuko dira emakumeek osatutako taldeak eta euskaraz egindako kantak.

Izen-ematea

Interneten bidez, Bilboko Udalaren webgunean, ekainaren 25era (gauerdia) arte.

Eskabideagaz batera, lau kanta, argazki bat eta taldearen ibilbidea bidaliko dituzte.

info+: www.bilbao.eus

Abuztuaren 19tik 27ra bitarte izango dira kontzertuak. Besteak beste, Unbreath taldeak jo zuen, 2014an. © LUIS MIGUEL BARRIA / BILBOROCK

Metala eta pop-rocka

Bilboko Aste Nagusiko erakustaldian izena emateko aukera izango dute musika-taldeen, ekainaren 25era arte. Aukeratutako bandek Bilborocken joko dute.

Aste Nagusian jo gura duten musika-taldeen ekainaren 25era arte izena eman ahal izango dute Bilboko Udalak antolatutako lehiaketan. Parte hartu gura duten bandek Bizkaikoak izan behar dute; gutxienez, kide bat izango behar dute lurralde historikoan erroldatuta. Bestalde, metalaren eta pop-rockaren barruko estilo guztiak

onartuko dituzte, jazzza izan ezik. Andrezkoek osatutako taldeei eta euskaraz egindako lanei arreta berezia eskainiko diete, aukeraketa egiten denean. Izena emateko, gutxienez, lau kanta aurkeztea beharrezkoa da; horrez gainera, biografia, argazki bat eta harremanetarako datuak ere helarazteko beharra dago. Kanten hizkuntza edo hizkuntzak, estiloa eta kideen izenak

ere adierazi beharko dituzte taldeek. Aukeratuko dituzten taldeen 45-50 minutuko kontzertua emango dute, Bilborock aretoan, abuztuaren 19tik 27ra.

Aste Nagusiko pop-rock erakustaldia 1985ean jaio zen bere lekua biltzen dabilen Bizkaiko taldeei bultzada emateko asmoz. Urteotan, bi mila lan baino gehiago aurkeztu dira eta 326 taldek jo dute Aste Nagusiko ikus-entzuleen aurrean, Bilboko Udalaren ekimen honi esker. Joera desberdinetako hainbat talde ezagun igaro dira bertatik, berbarako Platero y Tú, We Are Standard eta Zea Mays. ◀

Hitza emanda



Udalekua

*Egin gura nituzke
horrenbeste aipu...
begirale zein ume
engantxatzen gaitu;
ez dugu nahi izaten
sekula amaitu,
uda ahaztuezin
bilakatzen baitu!*



**BEÑAT
VIDAL
GURRUTXAGA**
Bertsolari leioaztarra

HIRUKAk proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Balendin Enbeita bertsopaper-lehiaketa

Balendin Enbeita Goiria (Muxika, 1906-1986) bertsolari handiak bere gustuko gaiaren inguruan patxadaz idaztea gogoko zuen, bat-bateko bertsoak ederto kantatzeaz gainera. «Horixe da, hain zuzen ere, orain eskatzen gatzokizuen, hau da, zuen gustuko gaia aukeratu eta bertso-sorta eder bat gogoz idazteko», adierazi du Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE). Bertsopaper-sariketaren 12. edizioa antolatu du, eta edozein bertso-jarraitzailek parte har dezake lehiaketan. Adinaren arabera, atal bi bereizi dituzte: 18 urte edo gehiagokoen atala, eta 17 urtera artekoena. Heldu bakoitzak zortzi bertso egin beharko ditu, gutxienez, eta, hamabi, gehienez. Gazteek, berriz, sei eta hamar bertso artean egin beharko dituzte. Horrenbestez, lanak jasotzeko azken eguna irailaren 30a izango da; «bertso guztiek berriak izan behar dute, hau da, beste inon saritu edo argitaratu gabekoak», oharta-



Balendin Enbeitaren estatua, Bilbon. NOEBSE

razi du ALBEk. Sariei dagokienez, helduen artean, 1.000 euroko, 700 euroko eta 400 euroko sariak jasoko dituzte lehenengo hirurek, hurrenez hurren. Gazteek, oster, 100 euroko, 200 euroko eta 300 euroko sari bana izango dute. Horrez gainera, denontzat egongo da garaikurra, eta, lehenengoz, txapela. Bertsoak posta arruntez zein posta elektronikoz bidal daitezke. Irabazleen izenak urte-akabuko ALBE Galan jakinaraziko dituzte. ◀

info+: 605 704 385 / albegetxo@gmail.com



Sakonak Kinatuz

**EKAITZ
HERRERO SAN MARTIN**
Kitzikari Uribe Kostako kidea

Gizalegez kanpoko orgia politikoaren zale

Filosofia post estrukturalistaren zale amorratua naiz. Teresa de Lauretis, Foucault, Deluze, Guatarri edo Wittig pentsalarien jarraitzaile talibana. Guztiak segitzen ditut berdin. Baita 68ko errautsetan jaiotako modernaren kontrako gainontzeko kamikaze itsuak ere. Duopolioak eta dikotomiak hamaika zatitan urratu dituzten miresle. Ekonomialari post-marxistei ipurdiko zuloa erakutsi dieten akademiako kiderik eskasenen idolatra ezegonkorra. Hartutako immunoeskasiaren gaitzaz desagertutakoa, Iranekin desengainu handia hartutakoa, Mila Goi-ordokietan galdutakoa, kideen aginduz paradisura erbesteratutakoa. Hurrenez hurren.

Beraz, polizia uniformeekin arro dauden homosexualak, katastrofea. Berlingo harresiaren erorketa, hondamendia. Zekenketetan dabilen horiek, naziak. Bermeotik Somaliara arrantzara doazenak, lapurrak. Eskola, espetxea; irakasleak, kartzelariak, eta ikasleak prostituzio lanetan buru belarri, astelehenetik ostiralera; gurasoek behartuta. Haurtzaroa, ezabatu beharrekoa.

Demokrazia? 30. hamarkadan Alemanian zegoen berdinberdina. Telecinco ez da sartzen prentsa askatasunaren logikaren barruan; Estatuaren behararen logikaren barruan baizik. Esklabotza ez zen abolitu, baina arropa dotorea eraman behar dugu beraz, zer erremedio. Ez dugu hausnarketa sakonik egingo: ez dezagun gure kontzientziarekin topo egin. Hezkuntza publikoa? Gasteizen diru beharrean, baina Donostian metroa jarriko dute. Total, eraldatzearen beharra eta aukerak berak batxilergoaren bigarren kurtsoan bukatu omen ziren, historiako liburuaren azken orrialdearekin batera.

Normalaz azpikoak gara. Aterabide bat? Gizakirik gabeko mundu bat. ◀

«Gure ezaugarri nagusia da guk geuk eraikitzen dugula gure soinua»

Weepah Sound System

taldea entzuteko eta ikusteko aukera egongo da uztailaren 30ean, Algortako jaien egitarauaren barruan.

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: HODEI TORRES

Belardietan dabilen laukoteak Babylon suntsitzeko arma bila dihardu 2012. urtetik; orduetik, egurrezko kutxen artean galduta ibili dira, ahalik eta soinurik onena lortzeko ahaleginean. Euren ametsa soinurik indartsuena lortzea da, Babylon azpibaxuen artean desegin eta bizitza aske bati ekiteko.

Zelan sortu zen taldea eratzeko ideia?

Nebula: Gaur egun taldea lau partaidek osatzen dugu. Nebularen sesioetan elkar ezagutu genuen, eta orduetik Bilboko reggae-jaietara eta sound systemen jaietara elkarrekin joaten gara. Horietako batean gure sound systema egitea erabaki genuen, 2013an kutxa batzuk oparitu zizkiguten eta. Handik aurrera, gure ekipoarekin hasi ginen. Reggae-musika ipintzen dugu eta gure ezaugarri nagusia da guk geuk eraikitzen dugula gure soinua.

Azaldu, mesedez: zertan datza sound system mugimendua, mundua...?

Tronis: Ingalaterran indarra hartu zuen kultura da, baina, jatorriz, Jamaikakoa da. 60ko hamarkadan, Jamaikako diskoetxeek sound systemak sortu zituzten, eta furgonetetan sartu; gero, auzoz auzo, disko berriak aurkezteko. 80ko hamarkadan, Jamaikatik Ingalaterrara izandako migrazioarekin batera, jamaikarrek eurekin eraman zuten kultura hori (biniloak, musika jamaikar folklorikoa...) eta ideia bat: soinu-ekipoak sortzea, geroago, jaiak antolatzeko eta euren musika ipini ahal izateko. Mugimenduaren helburua da, batez ere zuk eraikitako soinu ekipoa edukitzea; soinu onena lortzea da asmoa, gero, reggae-musika bertan erreproduzitu ahal izateko. Hori guztia kalean jai irekiak antolatzeko asmoz. Ekipoen ezaugarrietako bat euren potentzia da, grabeak oso nabariak direlako. Kultura hau Ingalaterran lehenengo, eta geroago, Europa osoan zabaltzen da, nazioarte-maila bere eginenez; musikak ez baitu mugarik. Sound systemak irati baten modukoak dira: zuk aukeratzen duzu musika, eta en-



Algortako Weepah Sound System taldeak Zamudion du entsegu-lokala.

tzuleei eskaintzen diezu. Gaur egun, leku guztietan topa ditzakezu horrelako tramankuluak.

Mugimendua hedatzen dabil edo...?

Nebula: Orain dela 15-20 urte, estatuan ez zen sound systemik; berez, lehenengoak, atzeritik iritsi ziren, kamioietan. Horiek kontzertu batzuk lotzen zituzten eta bira moduko bat antolatzen zuten, zoroen moduan.

Weepah Sound System



Taldekieak

• Nebula, Txaber, Tronis eta Gok

Hurrengo kontzertuak

• Uztailaren 30ean, Algortako jaietan.

Aipatzeko moduko 5 talde

• Watts Attack sound system, King Burning Sound System, Jah Tubbys sound system, Iration Steppas sound system eta Roberto Sanchez.

Musika-estiloa

• Roots, Dub, Stepper.

Adibidez, Getarian egin zen bat, orain dela 20 urte edo; bertara joan ziren zaleak orain dela 10 urte hasi ziren euren ekipoak sortzen eta, gaur egun, erreferenteak dira. Azken lau urteetan, *big bang* moduko bat egon da estatu-mailan. Ez dakigu modan jarri den ala ez, baina jende askok berea eraiki du.

Euskal Herrian eta Uribe Kostan geroz eta talde gehiago sortzen ari dira. Zuen artean harremana daukazu?

Nebula: Euskal Herriko egoera ez da beste lekuetan bezalakoa. Hemen ez dago etsirik, materiala konpartitzen dugu, lagunak gara eta elkar ez zapaltzeko egutegitxo bat dugu. Bartzelonan adibidez, talde batek anplirik-edo ez badauka, beste batek ez dio uzten; euren pentsaera berekoian, eurentzat hobe da besteek emanaldirik ezin eman ahal izatea. Hemen, berriz, hori ezinezkoa da, guztion onurarako dihardugu.

Jendeak rave-ak eta sound systemen emanaldiak nahasten ditu... Kontu bera al da?

Nebula: Komunetan dute baffle-dorrea eta bakoitzak berea sortu behar duela; baina, jaiak ezberdinak dira. Sound system jaiak mezua dute; rave-k, ez.

Gazteak izanda, entseguak egiteko eta emanaldiak antolatzeko aukerak egon badaudela uste duzue, ala ez?

Tronis: Egoera kaskarra da, sound systema kalera ateratzea oso zaila da, beti jartzen dizkigute aitzakiak, eta beste bide batzuk bilatu behar izaten ditugu. Elkarrekin, jai-batzorde, gazte-azkenblada eta parekoekin harremanetan jartzen gara euren jai zein azoketan parte hartu ahal izateko; hori izaten da bidea. Guk etekin ekonomikorik bilatzen ez dugunez, horrelako mugimenduekin harremanetan egoten gara, jai kutsu soziala emanez.

Biniloa zuen arma garrantzitsua dela esan daiteke, zelan ikusten duzue euskarriaren egoera?

Nebula: Biniloa beti egon da hor; euskarri desberdinak sortu dituzte, kasetak, CDak, MP3ak... Baina horiek hilda daude; biniloa, bizirik. Salmentek gora egin dutela diote, eta eskuratzea geroz eta errazagoa da... Guk Interneten bidez eskuratzen ditugu, batez ere.

Zeri abesten diozue?

Txaber: Gauza askori abesten diegu: gaur egungo bizimoduari, rastafarien bizimoduari, Babylon (inposatutako sistema) deritzogunari, eta abarri.

Amaitzeko, beste zerbait?

Tronis: Eskerrak ematea Watts Attack eta King Burning-ekoei, dakigun guztia eurek irakatsi digutelako. ◀

info+: Facebook-en: Weepah Sound System

«Zarataz kutsatutako gizartearen bizi gara»

Leire Atxa Zaitegi getxoztarrak zarata-kutsadurari aurre egiteko bidea aukeratu zuen 2013an. Zarataren semaforoagaz hasi zen, baina, horrek zituen gabeziei aurre egin guran, Noisense gailu berritzailea aurkeztu zuen joan den apirilaren 26an.



TESTUA: IKER RINCON MORENO / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Zelan funtzionatzen du Noisense produktuak?

Noisense soinu-grafo bat da, hau da, zarata-datuak batu, eta horien berri ematen du, zuzen-zuzenean. Produktu honek zarata-atari bat zehaztu daiteke eta horren arabera grafikoa handituz edo txikituz doa, koloreen bidez irudikatuz. Hala, berdeak muga azpitik gaudela adierazten du, horiak mugatik hurbil gaudela eta gorriak zarata-ataria gainditu dugula. Une horretan harritura ikur bat agertzen da eta «isilik, mesedez» abisua ematen du; zortzi hizkuntzatan eman dezake mezua. Gainera, guk nahi dugun mezua ere graba dezakegu gailu honek. Hala, Noisensek mezu auditibo zein bisual batek adierazten du zenbateko zarata dagoen guzti jakin batean. Horrez gainera, interfazearen beheko partean alarma zenbat alditan piztu den jakinarazten du. Hala, gure inguruko zarata-mailaren segimendua egin dezakegu; ondoren, hobekuntzarako helburuak jarri ahal izateko. Produktua patentatu egin dugu, estatuan zien nazioartean. Gauzen internetera konektatuta dago, datuak batzen ditu eta bildutako informazioagaz neurketak egin daitezke Big Data erabilita. Nahi den tokian jar daiteke, eta Internetera konektatuz gero, leku horien guztien estatistikak eta txostenak egin daitezke Noisense gailuagaz.

Ikusezina den arazo bat ikusgarri bihurtzen duzue gailu horregaz, ezta?

Bai, hori da helburuetako bat. Gailua instalatzen dugun bakoitzean, jendea harritu egiten da, ezin due-

lako sinetsi zer-zer zaratak inguratzen gaituen. Kutsadura akustiko handiko gizartearen bizi gara. Ikerketa batzuen arabera, Espainiako estatua bigarrrena da munduan kutsadura akustiko gehien duten gizartearen artean, eta ez gara horretaz konturatzen.

EAE-n, barbarako, Hezkuntza Sailak zarata-maila zein den jakiteko ikerketak egin ditu eskoletako jantokietan, eta horietan denetan araudiak gomen-

“EAEko hezkuntza-zentro denetan jaurlaritzak araututako zarata-maila gainditzen da, askogatik gainera”

datzen duen maila gainditzen da. Hezkuntza-zentroetan, zarata-mailak 60dB-koa izan beharko luke, babes bereziko guztiak direlako, eta ikerketa horien arabera, EAEko batezbestekoa 85 dB-koa da. Kontutan hartu beharra dago 3dB bakoitzeko zarata-maila bikoiztu egiten dela. Zehatzago izateko, Getxoko Andra Mari ikastetxeko Gurasoen Elkarteak eskola horretako jantokian egin zuen ikerketa hori bera, eta 110 dB-rainoko neurketak jaso zituzten. Zarata-maila hori hegazkin batek aieratzeko momentuan egiten duen berdina da, ikaragarria da!

Zelan bururatu zitzaizun gailu hori garatzea?

Telebistan ikusitako dokumental baten ondorioz hasi nintzen horri bueltaka. Bertan, Espainiako hezkuntza-sistemaz berba egiten ari ziren, eta Finlandiakoagaz alderatu zuten. Hala, saio horretako kazetaria Helsinkiko ikastetxe batera joan zen, eta zarata neurtzeko semaforo bat aurkitu zuen bertan. Tresna hori baliagarria da umeek eurek egiten duten zarata egokitzeke. Interesgarria iruditu zitzaidan, eta hezkuntza-esparruko jendeagaz berba egin ostean, ikusi nuen erabilgarria izan zitekeela hemen. Hala, 2013aren bueltan, ikertzeari ekin eta tresna horren sortzailea aurkitu nuen. AEBetako emakume baten ideia izan zen, eta bere baimenagaz inportatu nituen; etxera ekarri nituen, asko pentsatu gabe. Ondoren, Estatuko hezkuntza-zentroen datu-base bat osatu nuen, eta eskaerak jasotzen ibili nintzen. Hala, bezeroak berba egin ostean, ikusi genuen produktu horrek bazituela hobetu beharreko zenbait kontu. Hortaz, buruari eragin, eta oraingo Noisense-a osatzeko bideari ekin nion.

Zelakoa izan zen produktuaren garapen hori?

Semaforo horrek zituen gabeziak betetzeko produktua osatu gura nuen. Eta, horretarako, EHUko Ingeniaritza Eskolara etorri nintzen, bertokoei ideia aurkeztera. Izan ere, Elektronika, Telekomunikazioa eta Mekanika sailletako jendea behar nuen produktua garatu ahal izateko. Ideia gustuko izan zuten, eta berori garatzeko asmoz talde bat osatu genuen. Hala,



urte bi eman ditugu produktua diseinatzen eta, prototipo bi egin ostean, daborduko lehenengo seriea egitea lortu dugu.

Apirilaren 26an aurkeztu zenuten Noisense, Zarataren Arazoaren inguruan Kontzientziatzeko Nazioarteko Egunean, hain zuzen ere...

Bai, lehenago aurkeztu nahi genuen, baina, apur bat itxarotea erabaki genuen. Data hori oso esanguratsua zela uste genuen halako produktu bat aurkezteko.

Zelako harrera izan du produktuak?

Harrera ona izaten ari da. Hainbat eskolatan erabiltzen ari dira, hala nola Lauaxeta ikastolan. Horiek ikasturte osoa daramate erabiltzen; Lehen Hezkuntzako ikasgeletan jarri dituzte. Horrez gainera, Bartzelonako eta Madrilgo hainbat ospitaletan probak egiten ari dira gure produktuak.

Zer zailtasun ikusten dituzu produktu horren erabileran bermatu ahal izateko?

Oso produktu berria da; denbora behar da jendea hori erabiltzera animatzeko. Askotan pentsatu behar dute behar duten edo ez; aurrekontu arazoak ere badaude. Nik jendea animatu gura nuke hori erabiltzera. Bilbon, berbarako, zaratari lotutako arazo handiak daude. Hala ere, bertoko agintariek ez dute produktu hau erabili gura. Badirudi arazo bat azaleratzen ari garela, baina arazo hori betidanik egon da hor. Konponbide bat ematen ari gara produktu honegatz.

Zer arazo eragin ditzake kutsadura akustikoak gure osasunean?

Arazo psikologikoak eta fisikoak eragiten ditu, hala nola buruko minak, lo egiteko arazoak, antsietatea eta odol-presioa handitzen du. Ikerketa batzuen arabera, zarata-kutsadura dagoen lekuetan jende gaxoa sendatzeko arazoak egon ohi dira, ospitaleetan eta pertsona nagusien kasuan, besteak beste.

“ Zarata da European gehien handitu den ingurumen-arazoa; EAEn ere salaketa gehien eragin dituen arazoa da ”

Zerk eragiten du zarata gehien gure herrietan?

Alde batetik, bideen azpiegiturak, kotxeak, trenak eta hegazkinak dabilatzalako horietan. Bestetik, tabernak dauden gunetan zarata handia egon ohi da. Auzokideakaz ere arazoak egon daitezke, eta trafikoak ere eragina izan dezake, besteak beste.

Zein da gure inguruan dagoen kalitate akustikoa?

Estatuan, zarata-maila handien duen hirugarren hiri da Bilbo. Uribe Kostari dagokionez, berriz, esango nuke nahiko inguru lasaia dela. Zarata-mapak dau-

de, eta orain Getxon berri bat osatzen ari dira. Hala ere, ezin da konparatu Barrikan egon daitekeen kalitate akustikoa edo Erandioko erdigunean dagoena. Zarata oso bestelakoa da. Autobiaren eta metro-tren-bidearen inguruko etxebizitzak sarritan kexatu ohi dira azpiegitura horiek sortzen duten zaratagatik.

Zer zarata-maila gomendatzen dute gehienez ere pertsonen ongizaterako?

Ordutegiaren eta lekuaren arabera. Araudiak bi geldialdi-ordutegi zehazten ditu: egunekoa eta gauekoa. Horien bien artean ordu biko tartea egon ohi da. Udalerri bakoitzak bere araudia duen arren, ohikoa da egunekoa 08:00etatik 20:00etara izatea, eta gauekoa, 22:00etatik 08:00etara. Legediak esaten duenez, etxebizitza batera heltzen den zarata-maila neurtu behar da; ez kalean sortzen dena. Berbarako, gauean gehienekoak 35 dB izan beharko luke. Egunean, lekuaren arabera izango da, gune akustikoaren arabera: bizitegi-eremua, babes bereziko eremua eta industria-eremua, besteak beste. Eremuaren eta ordutegiaren arabera, muga bat edo beste ezarriko da.

Urtez urte sortzen dugun zarata-maila handituz joan da inguruotan?

Bai, noski. Zarata da European gehien areagotu den ingurumen arazoa. EAEn ere hori da Arartekora heltzen den arazorik ohikoena. Gizartea orokorrean zarata-tsuagoa da: auto gehiago dago, errepideak ugaritu egin dira, azkarrago gidatzen dugu... Urduriago bizi gara. Hala ere, sentsibiltatea areagotu egin da, eta salaketa gehiago dago; araudia zorrotzu egin denez, jendeak gero eta erreklamazio gehiago egiten ditu.

Zer egin genezake arazo horri aurre egiteko?

Sortzen dugun zarata-maila zenbatekoa den eta arazo hori gure ongizaterako kaltegarria dela jakin beharko genuke. Errespetu handiagoa izan beharko genuke. Egunez egun, bakoitzak jakin beharko luke bere jarrerak zer-zelako eragina izaten duen ingurukoengan. Errespetua izanez gero, ondokoaren bizikaltatea hobetuko genuke. Hala ere, kontua ez da komunikatzeari, irteteari edo musika entzuteari uztea. Hori egiten jarraitu behar dugu, sozialak gara, baina bolumena zaindu beharko genuke.

Sortu duzuen gailua gizon-emakumeok kargu hartzeko baliagarria da, ezta?

Bai, mugak zein diren ikustarazten du Noisense produktuak, eta horiek gaudituz gero, erregulatzeko aukera ematen digu.

Beste zein produktu eskaintzen duzue?

Denetarik, material akustikoetatik babesgailu auditiboetara. Sabaietarako panel-xurgatzaileak ditugu, islatzeko paretak, sonometroak, bozgorailuak eta egokitzapenak egiteko materiala, besteak beste.

Eta zerbitzuak ere eskaintzen dituzue?

Bai, ingeniari akustikoa eta barrualdeko diseinatzaleak ditugu enpresan. Hala, egokitzapen akustikoak ere egiten ditugu. Gure ideia da zaraten arazoari irtenbide osoa ematea. Formakuntza eta sentsibilizazio-saioak egiten ditugu; abokatu bategaz elkarlanean gabiltza, eta auzokideen arteko arazoak konpontzeko bitartekaritza-lanak ere egiten ditugu, besteak beste. ◀



Iaz ere Euskal Herriko Liga irabazi zuen Askartzako emakumezkoen lehenengo taldeak.

Askartza Waterpolok Euskal Herriko Liga bi irabazi ditu: emakumezkoena eta gizonezkoena. Gainera, kategoria txikietan ere, zenbait garaipen lortu ditu harrobiak.

Datorren zapatuan, ekainaren 10ean, Leioako Askartza ikastetxeak ohiko eskola-festa egingo du. Bertan, waterpolo-klubeko jokalariek izango dute zer ospatu. Izan ere, buelta eman diote pasa den apirilko giroari. Orduan, Askartzako gizonezkoen lehenengo taldeak agur esan zion Espainiako Lehenen-

go Mailako Ligari, horretan hogei urte lehiatzen eman ostean.

Halere, maiatzaren akabuan eta ekainaren hasieran, klubeko beste taldeek erakutsi dute Askartzaren harrobi-lanak emaitza gozoak ere ekar ditzakeela. Hala, Askartzak irabazi zituzten Euskal Herriko Waterpolo Liga bietako txapelak, Iruñean, WP9802

klubaren emakumezkoen eta gizonezkoen taldeen aurkako joan-etorriko finaletan. Emakumezkoen kasuan, Isusko Ariasen taldea 7-6 nagusitu zen Leioan, eta Iruñean garaipena berretsi zuen, 8-9ko markagailuagaz. Aldi berean, gizonezkoen Askartza Bk 9-8 eta 9-11 irabazi zituen partida biak.

Talde seniorren garaipenetan ez da etengo Askartzako alaitasun-giroa. Izan ere, mutilen gazte-taldeak ere Euskal Herriko Ligaren finala jokatuko du, joan-etorriko finalerdietan, Leioa Waterpolori birritan irabazi

ostean. Nafarroa taldea izango du aurrez aurre, Iruñean, Larrainako instalazioetan, zapatu honetan, hilaren 10ean; bueltakoa, Askartzan, hilaren 17an. Kimuetan ere erakustaldia eman zuten Askartzako taldeek joan den aste-akabuan. Hala, Bizkaiko Eskolarteko Ligaren txapelduna da Vikingos; hirugarren, Apaches; eta zortzigarren, Piratas. Benjaminean, Lions taldea izan da irabazlea Bizkaiko Ligan; Monkeys, bigarrena; eta Tigers, laugarrena. Haur-taldea, txapeldunordea da; Espainiako Txapelketa jokatuko dute. ◀

Lagunarteko triatloi herrikoia egingo dute

Erainaren 18an egingo dute Algortako Lagunarteko Triatloi Oso Herrikoia bosgarren edizioa. Proba goizeko 10:00etan hasiko da; Parte-hartzaileek 250 metro igeri egin beharko dute, Portu Zaharretik Eragara, bizikleta hartu aurretik. Ondoren, 14 kilometroko ibilbidea izango dute, Ereagatik irten, eta Areeta, Fadura eta Azkorritik pasatzeko, besteak beste. Azkenik, 1.300 metro egin beharko dute, korrika, Algortatik. Izena posta-elektronikoz eman daiteke, ekainaren 15era arte. 50 pertsonentzako lekua dago. ◀

izen-ematea: ag.kirolabentura@gmail.com

Arrillaga eta Elgezabal, Gorlizen nagusi

Pasa den maiatzaren 28an jokatu zen Gorliz Badiako XI. Sprint Triatloia. Euskadiko Triatloi Federakuntzaren proban, 344 atletak parte hartu zuten. Horien artean, azkarrenak izan ziren Mireia Arrillaga Murelaga eta Mikel Elgezabal Fernández. Arrillagak bizikletaren gainean berreskuratzen zuten uretan galdutako denbora, eta oinez korrika egitea egokitu zitzaionean, atzean utzi zituen lehiakideak. Elgezabalek, oster, hasieratik kontrolatu zuen lasterketa, eta txirrindularitza-saioan Iñaki Loinaz eta Javier Fernández taldekideen babesa izan zuten; horiek podiuma osatu zuten. ◀

Virginia Díaz, Frantziako txapeldun

Virginia Díaz Areetako Raspas arraun-elkarteko kidea Frantziako txapelduna izan da 4X modalitatean, Baiona talde lapurtarragaz. Izan ere, getxoztarra ontzi txapeldun horretako partaide izan zen pasa den aste-akabuan. Raspasek nabarmendu duenez, «ontzi horretan arraunean jardutea, euskal talde bi horien artean dagoen harreman bikainari esker gertatu da; harreman on horren ondorioz, elkarre bien artean arraunlariak uzten edo trukatzeko proba jakin batzuetan batera parte hartzeko, araudiak bateratutako ontziak osatzea ahalbidetzen dituen probetan». ◀

José Luis Azqueta bela-sarian, hamaika irabazle

Abrako uretan erabaki zen José Luis Azqueta bela-sariaren 16. edizioa, pasa den maiatzaren 28an. Wor-60 modalitateko Euskadiko txapelketa horretan, 120 nabigatzaile gaztek hartu zuten parte, Euskal Herrikoek zein Kantabriakoek. Sailkapenean nagusitu ziren Tomás Trueba bizkaitarra (Laser modalitatean), Javier Amondarain (Laser 4.7), Amadeo Torrens eta Imanol Elorrieta Abrako kideak (Snipe), Jaime Framis eta Álvaro Betoño (420), Esther Garay eta Laro López (FEVA), Natalia Carreira eta Ana de Córdoba (L'Equipe), Ander Sánchez (Optimist A) eta Lorea Elduayen (Optimist B). ◀

Gimnastika-saria, Sakonetan



Euskal gimnastarik onenak egongo dira Sakonetan. © VICRILA FUNDAZIOA

Sakoneta gimnastika erritmikoko taldeak antolatu du Leioako Udalaren Gimnastika Erritmikoko 27. Saria. Datorren zapatuan egingo dute ekitaldia, ekainaren 10ean. Ohi legez, sariketa Sakoneta kiroldegian izango da. Goizean, federatutako gimnastek jardungo dute; arrastian, ostera, eskola-mailakoen txanda izango da.

Sakoneta klubak adierazi duenez, jardunaldia goizeko 10:36an abiaraziko du Saioa García etxeko ordezkariak. Aurrerantzean, beste 103 gimnastak egingo dituzte erakustaldiak, lehenengo mailakoak eta haur-kategoriakoak tartekatuz.

Federatuen saio horretan, ariketak egingo dituzte pilotakaz, uztaikaz, mazoakaz eta xingolakaz. Sakonetaz gainera, bertan izango dira honako euskal talde hauek: Gasteizko Beti Aurrera eta Oskitxo, Donostia, Altzako Izarleku, Eibarko Ipurua eta Tolosa, besteak beste. Halere, hainbat parte-hartzaile urrunagotik ere etorriko dira: Calahorra, Valladolid, Torrela-

vega, Logroño, Gijón edo Santiago de Cartes herrietatik, barbarako.

Bazkal ostean, taldekako txapelketa egingo dute 20 taldek. Sakoneta-koek zazpi taldegaz parte hartuko dute bost kategoriatan. Hala, kadete, kimu eta gazte mailatan talde bana izango dute, eta haur- zein senior-kategorian, bi. Leioaztarrek uztaiak, pilotak (bost uztai eta bost pilota) eta mazoak izango dituzte ariketak egiteko. Taldekako saioa amaituta, sari-emanaldia egingo dute, 17:20ak aldera, norbana-koen eta taldeen dominak emateko. Hala, 17:40tik aurrera, eskola-mailako gimnasten erakustaldiaz gozatu ahal izango da Sakonetan. Hala, denera, 54 kirolarik erakutsiko dute euren oreka eta trebezia.

Bestalde, joan den aste-akabuan jokatu zen Euskadiko Gimnastika Erritmikoko Txapelketa, Amateur Kadete-mailan. Bertan, podium bi lortu zituen Sakonetak: bigarren postua, taldearentzat, eta, hirugarrena, Garazi Alustizaren zat, soka. ◀

info+: Sakonetaget.com

Urduliz Eskubaloit Taldearen 40. urteurrena

Urduliz Eskubaloit Taldeak bere 40. urtemuga ospatzen segitzen du. Datorren zapatuan, hilaren 10ean, mahaiaren bueltan elkartuko dira jokalariek, kide ohiak, senideak eta klubaren zaleak, bazkari batez ospatu beharrekoak ospatzeko. Eguerditik aurrera, herrian trikiti-poteoa egingo dute, Iparalde kiroldegian bazkaltzen hasi aurretik. 17:00etan, zenbait omenaldi eta DJ-festa egingo dituzte. Kluba argazki bila dabil, 40. urteurrenako liburu bat kaleratzeko datorren irailean. ◀

info+: urduliz@urduliz.com

María López de Eguilaz, atezain onena izendatuta

María López de Eguilaz Jolaseta klubeko belar gaineko hockey-atezainak Halcón saria jasoko du, Oho-rezko Mailako atezainik onena izateagatik. Sari hori kategoria horretako entrenatzaileek erabakitzen dute. López de Eguilaz denboraldi honetan bueltatu da Neguriko taldera, Donostian Realagaz jokatu ondoren. Nazioarteko jokalariek ia 34 urte ditu eta 7 urte zituela hasi zen jokatzeko. Atea zaintzea 12 urte egokitu zitzaion; bere taldeko atezaina lesionatu zen eta berak ordezkatu zuen. ◀

Guillermo Llano, Plentziatik Kataluniara

Guillermo Llano pilotu plentziarrak Kataluniako Motorren Zirkuitua irabazi zuen, Open 1000 kategorian, pasa den maiatzaren 28an. Llanok ez zuen irteera ona egin, baina buelta bakoitzean denbora hobetzea eta are-rioak gainditzea lortu zuen, helmugatik aurrera pasa arte. Espainiako Abiadura Txapelketaren bigarren proba izan zen hori. Hala, txapelketako sailkapen nagusian parte hartu zuten 41 motoristen artean, 11. lekuan geratu zen Llano. Plentziarrak Europako Gazte Txapelketa irabazi zuen 2013an. ◀

Herri-kirolak zabaltzeko, forulaguntza gehiago

Aldundiak Sustariak Sustatzen programari 80.000 euroko diru-laguntza eman berri dio, bertoko kirolak sustatzeko asmoz. Laguntza hori izango da herri-kirolen hainbat diziplinaren inguruko ezagutza hedatu eta sustatzeko: trontza, harri-jasotzea, giza proba, lasto-proba, ingudea jasotzea eta txingak eramatea, besteak beste. Programa kudeatzeaz arduratuko da Euskal Joko eta Kirolen Bizkaiko Federazioa. Aldundiaren ustez, «erakunde horrek gure lurraldearentzat oso interesgarria den lana egiten dihardu». ◀

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GAVRKO
1967

50. URTEURRENA
GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84



Aldagelatik

**ANA
MASA PEREIRO**
Kirolzale amorratua

Zaleen laguntzari esker

O hioa da futbol-estadio eta kirol-jardunaldi handietan ehunka (edo milaka) ikusle egotea. Horiek bere taldearen izugarriko zaleak dira, eta partidei interes handiarekin jarraitzen diete. Kolore ofizialeko elastikoak eta tapaukak daramatzate, eta garai-penak ospatu eta porrotak jasaten dituzte jokalariek bezala.

Kirol eta talde txikiek ez dute halako publikorik. Normalean hutsik daude harmailak, ez dago ia inor partidetan animatzeko. Baina, talderik txikienak ere baditu beti munduko zalerik fideleak. Jokalarien familiak eta jokari ohiak dira hauek: gurasoak, neska- edo mutil-lagunak, neba-arrebak... fan talde txikia da orokorrean, baina ekitaldi guztiguztietara etortzen dira, datorrena datorrela. Partidua Eibarren, Coruñan edo Madrilen izanda ere, han agertuko dira jarraitzaile leial horiek. Kilometro ugari gidatzeko gai dira, bere ekipoa ikustearren. Euria, beroa, haizea, lokatza.... berdin zaie zale ausart hauei. Harmailetan eserita edota zelai ondoan zutik ikusten dituzte partida guztiak. Eta beti entzuten ditugu zelaitik, nahiz eta askotan gutxi izan.

Batzuetan lan ere egin behar izan dute taldearen beharrak asetzeko: farmazia edota ura erosteko supermerkatuen bat bilatu, jokalariren bat ospitalera lagundu, hirugarren denbora antolatu... eta beti kexarik gabe egiten dute, beti-beti taldea eta jokalariek laguntzeko prest.

Talde txiki guztiek dituzte halako zaleak. Normalean ez ditugu nabarmentzen, nahiz eta beti bertan egon. Askotan ere ez zaie bere lana eskertzen, baina izugarriko meritua dute. Taldearen zati garrantzitsua dira, eta beraiek ere badira emaitzak, batez ere, garaipen garrantzitsuak. Zale zintzo horiek dira talde txikiak bizirik mantentzen dituztenak. ◀

Etxekoak nagusitu dira

Leioako Emakumeak futbol-taldeak irabazi zuen bere izena darioan sariketa, senior kategorian. Pasa den zapatuan, emakumezko futbolaren festa bilakatu zen lehiaketa hori Sarrienako instalazioetan. Bertan, zenbait kirol-talde batu ziren, senior kadete-gazte, haur, kimu eta benjamin kategorietan lehiatzeko.

Leioako Emakumeak klubeko lehenengo taldea nagusitu zen hiruko txapelketako partida bietan. Partida biak belar naturaleko zelaian jokatu zituzten; dema bakoitzak 45 minutu iraun zuen. Peña Athletic Santurtziri 1-0 irabazi zioten leioaztarrek, Idoiak sartutako golari esker. Paldarrak taldeari abantaila gehiago atera zioten, June



Leioako Emakumeak taldea nagusitu zen senior mailan. © LEIOAKO EMAKUMEAK

eta Marielak gol bana sartu baitzuten, markagailua 2-0 uzteko. Beste kategoriei dagokienez, Errioxako selekzioak lortu zuen kadete-gazte eta haur ka-

tegorietan garaipena. Kimuen arteko garaipena Athleticentzat izan zen eta Peña Athletic Santurtzi nagusitu zen Benjaminetan. ◀

Getxo Rugby Taldea emakumezko bila dabil

Getxo Rugby Taldeak emakumezkoen artean errugbia ezagutarazteko kanpaina bati ekin dio. Emakumezkoen talde seniorreko jokalariek dabilta ekimena lantzen, kirol hori «astakiloentzat bakarrik» ez dela argi uzteko. Izan ere, azaldu dutenez, «hurrengo urtera begira jokalaria berrien bila gabilta. Adinak eta jatorriak ez du axola, danak zarete ongi etorriak!». Joan den barikuan egin gura zuten lehenengo ekimena, Itzurbaltzeta/Romoko plazan, baina euri-zaparradak bertan behera utzi zuen plakaketa bako ekimen ludikoa. Hala, bariku honetan egongo da errug-



Emakumezkoen B taldea ere sortu gura dute.

bian ondo pasatzeko aukera, Algotako San Nikolas plazan, hilaren 9an, 19:00etan. Egunotan, institutuak bisitatuko dituzte, eta ekainaren 16an jardunaldi irekia eta hirugarren denbora egingo dituzte Faduran, 18:30ean. ◀

Iñaki Saez Leioako futbol-campusa, prest

Iñaki Sáez campusak inskripzio-epea zabaldu du. Hala, daborduko izena eman dezakete 2003-2012 urte bitartean jaiotako neska-mutilek. Ohi lege, futbol-campusa Leioako Kirol Elkarteak Sarrienan dituen instalazioetan egingo da. Klubak zabaldu duenez, Iñaki Sáez Athleticen jokalaria eta entrenatzaile ohi bere izena darioan campusean izango da, eta eskola batzuk emango ditu. Denara, bost eguneko bost txanda izango dira, ekainaren 26tik uztailaren 28a bitartean. Badago aukera bertan bazkaltzeko, baita surfaz gozatzeko ere. ◀

info+: campusleioa@yahoo.es / 675 533 528

Maddi Torre sopeloztarra fitxatu du Betisek

Maddi Torre Larrañaga erdilari sopeloztarrak kolore zuri-berdeak defendatuko ditu denboraldi honetan. Torrek pasa den maiatzaren 23an jakinarazi zuen amaitutzat jo zuela Badajozeko Santa Teresa taldeagaz pasa den denboraldian izan zuen ibilbidea. Hala, egun berean, Betisen elastikoa jantzi eta azaldu zuen: «kamiseta hau defendatu ahal izateagatik poz-pozik nago». Athleticen jokalaria ohiak badaki ez duela erraza izango titularra izatea, bestelako erdilariek ere maila ona dutelako: «hori ona da. Konpetentziak taldea indartzen du; esperientzia lortu dute partidaz partida». ◀

Erandio Kirol Elkarteak egoitza berria dauka

Erandio Kirol Elkarteak Gabonen aurretik estreinatuko du bere egoitza berria, Jose Luis Goioaga etorbidearen eta Jado kalearen kantoian. Hala, futbol-taldeak atzean utziko du Bereterretxe kaleko egoitza historikoa. Kirol-elkarteak 170 metro koadro izango du, bulegoak eta ostalua ipintzeko. Izan ere, poteogunean egongo da futbol-etxe berria. Klubak eta orain arteko jabeak, Kutxabanke, pasa den maiatzaren 25ean gauzatu zuten salerosketa. Jesús Mari Carazo Erandioko klubaren zuzendaritza-taldeko bozeramaleak aurreratu duenez, taberna eta jatetxea ostalaritzako pro-



Klubak ez du zehaztu lokalaren prezioa.

fesionalek kudeatuko dituzte, alokairu-erregimenean. Azaldu duenez, «anbizio handiko proiektua» da egoitza berria. Klubaren beraren baliabideetatik aterako dute egoitza erosi eta egoitzeko diru gutzia, argitu duenez. ◀

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Getxoko 41. Nazioarteko Jazzaldiaz
gozatzeko sarrerak zozkatuko ditugu

Getxoko Kultur Etxearen ekimenez, Jazzaldiko kontzertuetarako sarrerak lortu gura badituzu, ekainaren 18a (domeka) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Ekaineko saria
Parapente-hegaldi bat, udan gozatzeko



Hilabete honetako sari hori HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean zozkatuko dugu. Zozketan parte hartzeko, bidali ekainaren 30a (barikua) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabilerak erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

					3		8	7
8			4	9				
7		6				4		
	4				9		7	
			8	3				1
9		2			6			
								8
	2		3			1		
		3		4		2		

Soluzioa

5	9	2	8	7	6	3	4	1
6	7	1	5	4	3	8	2	9
8	3	4	1	2	9	6	5	7
7	5	3	9	1	4	2	8	6
1	2	6	7	3	8	4	9	5
9	4	8	6	5	2	1	7	3
3	6	7	2	8	5	9	1	4
2	1	9	4	6	7	5	3	8
4	8	5	3	9	1	7	6	2

+ Guardiako farmaziak, ekainaren 8tik 14ra

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716.
Zapatuan, 09:00-14:00.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360.
Astegunetan, 09:00-22:00; martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA.
944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

BERASATEGUI. Tartanga, 5. ALTZAGA.
944 671 429. Zapatuan eta domekan, 09:00-14:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA.
944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA.
944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis.
ERANDIOGOIKOA. 944 530 124.
Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA.
944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik asteleheneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA.
944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA.
944 303 328. Egutero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA.
944 301 352. Egutero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA.
944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA.
944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA.
944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328.
Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA.
944 638 460. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA.
944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ABERASTURI. Maidagan, 21. GETXO.
944 300 796. Zapatuan, 10:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO.

944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO.
944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1.
ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA.
944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452.
Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941.
Egutero, 09:00etatik aurrera, 24 orduz; zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

NARDIZ. Mendibila, 1. Leioa. 944 800 484.
Barikuan eta zapatuan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89.
944 803 191. Domekan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE.
944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA.
944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA.
946 572 295. Egutero, 09:00-22:00.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301.
Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

BENITO. Etxebarri, 19. 946 766 013.
Astelehenetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik barikuko 09:00ak arte.

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547.
Astegunetan, 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768.
Astegunetan, 09:00-22:00; eta zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA.
946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; eta barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA.
944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507.
Astegunetan, 09:00-22:00; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.



© EUSKO LEGEBILTZARRA

Arartekoari, ko

Arartekoak azken txostena aurkeztu zuen joan den astean. Eskualdeko udalen aurka ipinitako 53 kexek izan duten ibilbidearen adibide batzuk ezagutarazi zituen; eta bertoko ertzain-etxe bi bisitatu zituen.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / ARGAZKIAK: HODEI TORRES

Manuel Lezertua Arartekoak buru den erakundearen 2016ko txostena azaldu zuen Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean, pasa den maiatzaren 26an. Arartekoak jakinarazi zuenez, 2016. urtean denera 10.958 jarduerari erantzun zien herritarren defentsarako bulegoak, 2015ean baino % 23 gehiagori. Horietatik, 8.171 kexak izan ziren. «Berriro ere lanez gainezka ibili gara», iritzi zion Lezertuak, 2010. urtetik, % 70 hazi baitira herritarren kexak, «orduan ikusten hasi baitziren krisiaren ondorioz larrienak». Azaldu zuenez, «eduki ekonomikoko gizarte-prestazioei buruzko kexek eragin handia izan dute» horretan.

Kexa horien inguruko 2.498 kexa-espediente zabaldu ziren. Halere, 264 ez ziren onartu, hainbat arrazoiengatik, eta beste defentsa-erakunde batzuei igorri zizkieten 76. Hala, erakundeak bideratu dituen 2.158 kexa-espedienteren herenak baino gehiagok (759 espediente) harremana zuten «Lanbideren jarduera txarrak eragindako hainbat arazorekin», Arartekoaren ustez. Hortaz, idatzitako kexa gehienak (ia % 65) Eusko Jaurlaritzaren aurkakoak izan ziren, eta gutxi izan ziren udalen aurkakoak (% 24 baino gutxiago). Arartekoak ofiziozko 34 espediente ireki zituen.

EAEko udalen eta administrazio-batzarren aurka 311 espediente bideratu zituzten; horietatik 222, Bizkaian. Uribe Kostan, hamar udalerriek izan zuten

euren aurkako espedienteren bat, denera 53. Kexa gehien Getxok eta Sopelak batu zituzten, 15na; kexa bakarra jaso zuten Lemoizek eta Plentziak; eta kopuru-tarte horretan ibili ziren beste denak: Erandion, 7 kexa-espediente; Leioan, 5; Berangon, 3; eta Barrikan, Gortizen eta Urdulizen, bina.

Leioako Udalak ingurumen-azterlan bat egin zuen, Lamiakoko ibarraren ingurumen-balioak ezartze aldera

Barrikari dagokionez, Arartekoak ebazpen bat kaleratu zuen iazko uztailaren 4an. Bertan, Udalarri gomendatu zion «neurriak hartzeko, jatetxe batek eta jatetxe horren kanpoan instalatutako terrazak eragindako eragozpenak saihesteko». Lezertuak iradoki zion Udalarri «ingurumen-kontrol eta diziplina-gaitasunak» erabil zitzaizkion, «bai jarduera, bai kanpoaldean duen terraza behin betiko legeztatzea bermatzeko, edo, bestela, instalazio biak ixtea erabaki dezan». Dena den, Udalarri aholkatu zion, jarduera legeztatzeko prozedurak iraun bitartean, lokala itxita edo zigilatuta egotea, «edo auzokoei eragozpenak sor diezazkieketen tresna guztiak kentzea».

Erandioko Udalarri, oster, zenbait gomendio egin dizkio Arartekok. Adibidez, iazko otsailaren 22ko ebazpenean iradoki zion «atzerapen gehiagorik gabe» har zitzala «neurri egokiak», Astrabuduko Lubarri kaleak Meso kaleagaz bat egiten duen gunean «trafikoko araudia betetzea bermatzeko». Izan ere, «baimenik gabeko ibilgailuak» sartzen ziren oinezkoentzako kalean, eta bertan aparkatzen zuten, ebazpenak jaso zuenez. Lezertuak azpimarratu zuenez, Erandioko Udalak jarduera hori zuzendu zuen.

Erandioko azoka txikia

Irailaren 27an, Arartekoak gomendatu zion Erandioko Udalarri kexa aurkeztu zuen herritar bati «ofizioz baliogabetzea» hirigintza-zerbitzuen tasa bezala zein Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarengatiko (EIOZ) tasatzat igorritako likidazioak, «eskulanaren kostua benetako kostutzat hartu zuen zenbatekoa» ez zuelako «behar bezala arrazoitu», eta zerga-oinarriari BEZaren kontzeptupean ordaindutako zenbatekoak gehitu zizkiolako.

Erandioko Udalarri beste gomendio bat igorri zion, kaleko salmenta erregulatzeko udal-araudiari dagokionez. Hala, erakundeak amaiera eman zion Erandio udalerrian kaleko salmentaren gainean 2015. urtean abiarazitako ofiziozko espedienteari. Izan ere, kaleko salmenta arautzeko ordenantza zaharkituta zegoen, eta ez zuen kontuan hartzen 2010ean onartutako legeria. Ebazpenean, Arartekoak gomendio garbia egin zion Erandioko Udalarri: «2017ko urtarriaren 1etik aurrera esleitu behar diren kaleko kaleko salmentan edo salmenta ibiltarian aritzeko baimeak indarrean dagoen legeriari jarraiki izapidetu daitezela, norgehiagokaren araubideari men eginda».



Dozenaka kexa aurkeztu zituzten uribekostarrek



onponbide eske

Bestalde, Lamiakoko Ibarren Defentsarako Plataformak kexa aurkeztu zuen hezegune horren babes-egoera zela eta. Plataformak eskatu zuen «inguru horretan egin nahi diren obra eta azpiegituretako batzuek ekar litzaketen ondorioei aurrea hartzeko edo, behintzat, haien eragina murrizteko». Lamiakoko ibarra 2011n sartu zen EAEko hezeguneen inbentarioan, eta 2004ko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren arabera, «babes-araubidea udal planeamenduaren bitartez ezarri» behar zioten, Arartekoak azaldu zuenez. Plataformaren ustean, «Leioako Udalak oraindik ez du egokiro bete HGLAPeko aurreikuspen hori, hezegunearen ingurumen balioak behar bezala bermatzeko». Arartekoak informazioa eskatu zion Leioako Udalari, eta horrek azaldu zion Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean aldaketa egin zela 18. eremuan (Lamiakoko dartsenan) eta 18 B-AXA eremua sortu zela. Aldaketa hori 2013ko otsailean onartu zen behin betiko. Kasu horretan, Leioako Udalak ingurumen-azterlan bat egin zuen, Lamiakoko ibarraren ingurumen-balioak ezartze aldera. Udal-txosten horren arabera, «18 A eta 18 B eremuan jasotako antolamendua lehengoratzearekin eta udal babesarekin bateragarria da». Hala ere, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Biodibertsitate Zuzendaritzak bi txostenetan adierazi zuen Leioako HAPOren aldaketan ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar zela. Arartekoak Leioako Udalari gogorarazi zion hiri-antolamendurako planei eta horien aldaketei, ingurumenean eragin nabarmena badute eta 2004ko uztailaren 21a baino geroago jaso badute hasierako onarpena, ingurumen-ebaluaziorako prozeduren gaineko 2006ko eta 2013ko legeak aplikatu beharra dagoela, Europako Parla-

mentuaren eta Kontseiluaren 2001eko Zuzentarauari jarraituz. Gainera, izapide horren garrantzia Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian jasota dagoela gogorarazi zuen Arartekoak. Besteak beste, HAPO baten aldaketa bat bertan behera utzi izan zuen iaz, ingurumen-izapide hori ez betetzeagatik.

Neguriko ertzain-etxea

Dena den, Arartekoak eskualdean egin zituen jarduera denak ez daude lotuta udalei ipinitako kexa-espedienteakaz. Adibidez Ertzaintzako Ingurumen Atala bisitatu zuen Erandioko ertzain-hirian, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuagaz bate-

Neguriko komisariak ez zuen «adin txikikoen zaintzarako berariazko gelarik», legeak agindutakoaren aurka

ra. Modu berean, 2016an Getxoko Ertzain-etxearen atxiloketa-zentroa bisitatu zuen Lezertuak. Txostenak dioenez, Ertzaintzaren atxiloketa-zentroetako instalazioak, «egokiak dira esleituta duten eginkizuna betetzeko». Bisitaldiaren egunean, zentroko garbitasun- eta mantentze-egoera «onargarriak» zirela dio. Halere, txostenean zenbait kritika egin zizkion Neguriko komisariari. Lehenengoa da ez zuela «adin txikikoen zaintzarako berariazko gelarik», adingabe-koen ardura penala arautzen duen 2000. urteko legeak horrela agindu arren. Gainera, gabezia hori ez du Negurin bakarrik ikusi, Arartekoak «bisitatu dituen Ertzaintzaren atxiloketa-zentro guztietan» bai-

zik. Bestalde, Neguriko Ertzain-etxeko bideo-grabazioaren inguruko kexa ere aztertu zituen Arartekoak. Bere ustez, «aztertutako sistemak ez ditu betetzen mekanismo horrek eraginkorra izateko eduki behar litzuzkeen baldintza guztiak». Izan ere, kexa hori 1999ko eta 2006ko txostenetan ere plazaratu zuen Arartekoak. Hala ere, txostenean nabarmendu zuenez, Getxoko ertzain-etxeak zenbait ezberdintasun ditu, beste zentro batzuek alderatuta: «kamerek grabatzen duten eremutik kanpo geratzen da polizia-ibilgailuak polizia-etxearen barrutian egiten duen ibilbidearen tarte bat. Gainera, erreserbatutako elkarrizketaren grabaketa jasotzen du irudietan. Horrek ez ditu bermatzen jarduera horren berezko ezau-garriak diren pribatutasuna eta isilpekotasuna».

Gainera, herritarren defentsarako bulegoak akordura ekarri zuenez, «zentroak ez ditu txertatu, oro har, atxiloketen bideo-grabaketari buruzko proposamen berriak», erreferentzia eginez Arartekoaren 2010eko txostenean jasotako *Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak* ikerketari eta 2011ko gomendioei. Ildo horretan, Ertzaintzak «ez du bermatzen grabatutako jardueretatik erator litezkeen balizko administrazio- eta zigor-erantzukizunak preskribatzeko gehienezko denbora-mugan gordeztea grabatutako materiala, eta, xede horietarako, ez dituzte kontuan hartzen giza eskubideak bermatzeko erakundeek (Arartekoak, berbarako) esku hartzeko duten epea. Babesten ditugun irizpideetatik urruntzen da hori, eta mekanismo honen izaera bermatzailea mugatzen du», kritikatu zuen Lezertuak zuzendutako bulegoak. ◀



Sukaldean

Txokolatezko sumendia, askotariko izozkiakaz



OSAGAIK:

Txokolatea (% 55 kakaoa, gutxienez), gurina, irina, azukrea eta arrautzak.

XURRUT PIZZA BAR & MUSIKA

Hormazalanda enparantza, 2. 48630 Gorliz (Bizkaia)
 Tel: 946 771 389
 www.xurrut.com

Udaren atarian gaudela, itsasora hurreratze-ko garaia heldu da. Hori dela eta, oraingoan, urtean eguzki-ordu gehien bereganatzen dituen Bizkaiko udalerrira hurbilduko gara: Gorlizera. Hondartzan lasai-lasai ibili eta gorputza freskatu ostean, indarberritzeko egundoko aukera ematen du bertoko Xurrut tabernak, udalerraren erdi-erdian. Aukera zabala aurki daiteke bertan, tartean etxean egindako garagardoak zein txakolinak. Sabela betetzeko, oster, ohikoa da bertan egiten dituzten askotariko pizetako bat aukeratzea. Horregaz batera, gainera, badago mokadu berezi eta gozo bat: txokolatezko sumendia. Egunero har daiteke postre edo azkenburuko hori, 5 euroan; eta,

oraingoan, etxean zelan egin dezakegun ere erakutsi digute Xurrutekoek. Hasteko, txokolatea eta gurina urtuko ditugu, marian berotuta. Bitartean, beste ontzi batean, zuringoak irabiatuko ditugu, eta apartsu daudenean, nahasten utzi barik, gorringoak gehituko dizkiogu, baita azukrea eta irina ere, xehe-xehe iragazkitik pasatuta. Ostean, egindako ore biak nahastu, ontziak bete, eta aurretik 300 gradutan berotutako labean sartuko ditugu, 5 minutuz. Jarraian, labetik atera bezain laster, moldea kenduko diegu eta, apur bat hozten direnean, gustukoen ditugun izozkiak gehituko dizkiogu mokaduari. Kasu hone-tan, laranja-izozkia aukeratu dugu, udarako aukera itzela! Zein aukeratu duzue zuek? Goza egizue! ◀

faceguk



Nuklearraren orde, zer?

OLATZ LÓPEZ BRAÑAS

ARMINTZA (LEMOIZ)



Itsasoaren inguruko museoa ipini-ko nuke nik; izan ere, bertatik jende asko igarotzen da, paseoan. Interesgarria litzateke horiei ingurua ezagutzeko aukera ematea.

MARÍA DOLORES GUTIÉRREZ ÁLVAREZ

ANDRAKA (LEMOIZ)



Ordainpekoak izanda ere, txirrista erraldoiak dauzkaten igerileku horietako batzuk ipintzea gustatuko litzaidake. Udan, txikien eta handien gozagarria izan daiteke.

AMAIA BENGURIA ARRILUZEA

BILBO / ARMINTZA (LEMOIZ)



Zentral nuklearra kendu, eta inguru guztia lehen zegoen bezala utziko nuke. Ez nuke ezertxo ere ipiniko. Zentralaren beharrik ez zegoen; natura berreskuratuko nuke.

JUAN CALZADA RÍO

GORLIZ



Kirol-portua egin beharko lukete. Itsasontzi txiki bat daukat; bost urte daroztat zain, portuan amarradura berriak noiz ipiniko dituzten; baina, ez dago modurik.

JUAN LUIS OLARAN SUSTATXA

ARMINTZA (LEMOIZ)



Lur horiek Lemoizko Udalaren esku utzi beharko litzukete berrit, eta lemoiztarrek erabaki beharko genuke bertan zer egin, administrazio publikoen laguntzaz.

Dastaketa fitxa

TXAKOLINA: Azkorrene.

UPELTEGIA: Azkorrene Txakolina.

MAHATSAK: Gorlizko Uresarantza auzoan landutako Hondarribi Zuri mahatsak eta Chardonnay mahatsak.

DASTAKETA: Fruta-gustukoa, lehorra, garraztasun berezikoa eta zapore-ondoko atsegina duen txakolin gaztea. Gorlizko klima bereziaren eraginez, bertan landutako Hondarribi Zuri gehienek eta Chardonnay mahatsen ukituek ematen dioten ekarpenaz ekoiztutako ardoa da.



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua